

420 zenbakia. 2000ko irailaren 8a
JARDUN ELKARTEA

Bergarako astekaria

Berrigara

2000-2001

1.700 neska-mutikok hasiko dute ikasturtea Bergaran



SUKALDE ETA BAINUKO ALTZARIAK

Ibargarai 11-13 BERGARA
Telefonoa eta faxa: 943 76 70 58





LA PUERTA AL INGLES, S. L.

2000-2001 IKASTAROA

MATRIKULA ZABALIK



INGELESA

- Umeendako, gazteendako eta helduendako klaseak eguerdiz eta arratsaldez
- Cambridgeko azterketarako prestaketa
- Enpresendako klaseak
- Banakako klaseak

2000ko ekaineko deialdian Cambridgeko Unibertsitateko Preliminary English Test (PET) 11 ikasletik 10ek gairatu dute! Zorionak denoi!

- Astean **3 egun**
13:45etik 14:45era,
8 urtetik 10era bitarteko neska-mutikoendako
- Astean **2 egun**
17:30etik 18:30era,
6 urtetik 9ra bitarteko neska-mutikoendako

KURTZOAREN HASIERA IRAILAREN 18AN

INFORMAZIOA: Burdiñate 5, Bergara Tf. 943 76 30 01

Masaje Terapeutikoa

Ikastaroa

Gaiak



- Masajea
- Hidromasajea
- Bapore Bainuak
- Solariuma
- Ultrasoinuak

Patologiak

- Homalgiak
- Lordosia
- Lunbalgia
- Zerbikalak
- Ziatika
- Eta abar
- Eskoliosia
- Zifosia

Kirol lesioak sendatzea

- Muskulu-uzkurdurak
- Zuntzen etendura
- Zaintiratua
- Bendajeak
- Tendinitisa
- Eta abar
- Tenislari ukondoa

Masaje Aplikatua



Zelulitisa kentzeko Masajea

Giza Anatomia

Reflexologia

Ordutegia: Asteazkena 18etatik 21etara

Iraupena: 13 hilabete

Hasiera: Irailaren 13a

Irakasleak:

Juan M^o Santos eta Mertxe Alcalá



Kale Zaharra, 42 behea

Tel.: 943 78 01 71

Oñati

www.mertxe.com



Zarata

Juan Martin Elexpuru / Idazlea

Zer hartukok!!?

-Kubata bat!!

-Zer!? kubata bat!!!

-Ez, kubata bat!!!

-A! Kubata bat entendidu dostat!! Zu, etaraixozu honi bokata bat! Hi, zer bokata biok, tortillia?

-Ez, Balantais!

-Zer? patatiana?

Maila honetako komunikaziñua egoten da gure tabernetan, jai eta asteburuetan, behin ilundu ezker. Musikia topian, eztarria topian, belarrixak topian, dana topian. Alkarri entzun, ezebez. Ezin gonbestaziño formal bat euki. Ezpanak irakurtzen ikasi bihako da gabian urtetzeko. Edo gormutuen hizkuntzia, bestela. Eta ez gaztien tabernetan bakarrik. Aspaldiko gaztiak ibiltzen garen tabernetan be antzera.

Hurrengo egunian danok kejaz: ezin da berbaik eiñ, zelako zaratia, zelako eskandalua, zoratuta gare, eztago deretxorik.

Baiña iñork ez badau zaratarik nahi, zeiniek nahi dau orduan? Tabernarixak, gehixago saltzeko. Ba orduan joan gaitien zaratarik ez dagoen tabernetara.

Baina halakuetan iñor ez ei da sartzen. Enfin; hemen norbait dabil gizurretan. Gehixenok, itxuria danez.

Eta ez da gabeko kontua bakarrik. Behin norbaitek eruan ei zeban atzerritar bat gure herriko soziedade batera afaltzera, eta sartiaz bat, hango berbarua entzunda, galdetu ei zeban larrittuta: "zer, alkarrekin hasarretuta dare, ala?" Kuadri-

"Ezpanak irakurtzen ikasi bihako da gabian urtetzeko.

Edo gormutuen hizkuntzia, bestela. Eta ez gaztien tabernetan bakarrik. Aspaldiko gaztiak ibiltzen garen tabernetan be antzera"

lla bat zeuan afaltzen, "normal" berba egiten. Baiña gure normal berba egitia badakigu zer dan. Afarittan be eztarria betian egin bihar. Ostera, joan Frantziara edo Portugalera eta txokauta geratzen ga jatetxetako zarata faltarekin. Jakiña, zozo batzuk die, mozolo batzuk. Gu, berriz, demasak. Onenak gaittuk!

Zaratia droga bat ete da hainbeste jente engantxatzeko? Hala bada, trafikantiekien zeoze egin bihako da, eta kontsumitzailekin be bai, desintoxikatzeko: Urbixako txabola batera bialdu, esate baterako. Bakarrik eta radixo barik.

Ala ez daukagu ganorazko ezer esateko, eta zaratiakin ez da hainbeste igartzen? Hala bada, grabiagua oinddio. Honen erremeixo txarra dauka.

Eta zaratia kutsadura klase arriskutsu moduan ezin ete leike konsiderau? Nik ez dakit ozono-geruza izurratzen daben, baina belarrixak eta eztarria bai. Baina honek buruan dare, eta burua ez da, itxuria, oso parte inportantia.

Bueno, ni azken batian basarrixan bizi naiz. Zer ez ete leuke esango taberna edo dantzatoki baten gaiñian lo egiten dabenak?<

barruan



Jose M. Larrañaga

M. Altunako zuzendaria

"Matz-Errekarekin sinatutako lankidetz hitzarmena oso positiboa da"

8.



Marisa Zubillaga

Mariaren Lagundiako sikologoa

"Umeeke opor luze batzuen beharra daukate, eskolatik deskonektatzeko"

16.



E. Elkoroberezibar

Zubikoa baserrikoa

"Euskal Herrira maiatzian munduko espektakulorik zoragarriena da"

29.



BEKAK
Energia buruzko sakontze-ikasketak. Gómez Pardo Fundazioa. Erdi mailako edo goi mailako teknikaria. Urtebetean ikastaroak, ikerketak edo seminarioak egiteko 2 beka. Epea: irailak 22.

IKASTAROK
Marrakzi bizidunak. Sirimiri Films. Maila adierazteko marrakziak erakutsi beharko dira. Animazio tradizional-ikastaroa. Hernanin, irailaren 12tik ekainaren 21era arte. Epea: irailak 12.
Alpinismo arkaitzean. Gipuzkoako Goi Mendi Eskola. Mendi Federatu txartela dutenentzat. Hastapena eta hobekuntza. Epea: irailak 13.
Aisialdi eta euskarako begiraleak. Oarso Euskara Batzordea; Lau Haizetara Elkarte. Begirale eta dinamizatzaile izan nahi duten 18 urtez gorakoentzat. Ikastaroa Goizuetan burutuko da. Epea: irailak 14.
Eusko Ikasgaiak. Eusko Ikaskuntza. Ikasturtean zehar Donostian burutuko den 225 orduko ikastaroa. Epea: irailak 15.

SARIAK
Kirol argazkia. Bergarako Udala; Pol-Pol Argazki Taldea. "Kirol Argazkien hamargarren lehiaketa". Gaia kirola da. Zuri-beltzean edo koloretan; Mota bakoitzeko lau; Saritu gabeko argazkiak. Epea: irailak 13.
Andres de Irujo Saria. Eusko Jaurlaritzako Lehendakaritza. Euskaldunek Euskaditik kanpo XX. mendean izandako ekarpena azaltzen duten lanak sarituko dira. Epea: irailak 15.

LAN-ESKAINTZAK
Administrari laguntzailea. Irungo Udala. Kirol Patronatua. Eskola Graduatua edo baliokidea. Epea: irailak 15.
Kirol teknikaria. Patronato Municipal de Deportes de Irun. Heziketa Fisikoa. Lizentziatua. Epea: irailak 15.
Liburutegi arduraduna. Oñatiko Udala. Diplomatu titulazioa edo baliokidea. Epea: irailak 19.

KARNETAK
Nazioarteko Aterpekeide, Ikasle (ISIC), Gazte (IYTC) edo Irakasle (ITIC) karnetak eskuratzeko, zator Gazte Informazio Gunera.

INFORMAZIO GEHIAGO:
BERGARAKO GAZTE INFORMAZIO GUNEA: Kultura Etxeko bulegoa eta panelak, eta Irizar jauregiko panelak
Telefonoa: 943 77 91 57
E-mail: gzerbitzua@euskalnet.net
Osteguna eta ostirala: 16:00-20:00
Larunbata: 09:30-13:30

OHARRA. Bergarako edo inguruko elkarte, heziketa zentru eta enpresei eskertuko genizueke **Gazte Informazio Gunera** igortzea zuen ekintzen, ikastaroen, lehiaketen eta lan-eskaintzen informazioa, bertako gazteei nahiz probintzia guztikoei informazioa zabaltzeko. Mila esker.

bertako berbak

Juan Martin Elexpuru

Otsoko eta Aixelko

Ipuinetako pertsonaiak; otsoa eta azeria.

-Aixelkok esan zotsan Otsokori: "Ikusi Otsoko, gaztaia potzuan".



JOSU OKINA

Temperaturak eta euria Bergaran

San Juan

Luis Mari Agirrek emandako informazioa

	Temperatura maximoa	Temperatura minimoa	Euria
Abuztuak 31, eguena	24 °C	13 °C	—
Irailak 1, eguakitza	24 °C	11 °C	—
Irailak 2, zapatua	24 °C	13 °C	1,1 l/m ²
Irailak 3, domeka	21 °C	15 °C	1,3 l/m ²
Irailak 4, astelehena	20 °C	14 °C	—
Irailak 5, martitena	24 °C	10 °C	—
Irailak 6, eguaztena	28 °C	8 °C	—

Farmaziak

Eguakitza 8:
MOZOS. San Pedro 4. Tf. 943 76 12 15.
Zapatua 9:
GUALLAR. San Antonio 5. Tf. 943 76 11 05.
Domeka 10:
GUALLAR. San Antonio 5. Tf. 943 76 11 05.
Astelehena 11:
ESTELLA. Matxiategi 5. Tf. 943 76 19 63.
Martitena 12:
GUALLAR. San Antonio 5. Tf. 943 76 11 05.
Eguaztena 13:
ESTELLA. Matxiategi 5. Tf. 943 76 19 63.
Eguena 14:
MOZOS. San Pedro 4. Tf. 943 76 12 15.

Ogia

Domeka 10: Konde.

Zozketak

Osintxuko Kofraixak.
Mallorcara bidaia 2 lagunentzat: **4.662**

Hurrengo alean, irailaren 15etik 21era bitartekoan zorion agurrak argitaratuko ditugu.

zorion agurrak



Ander Feo
Abuztuaren 22an 3 urte.
Urte askotarako! Etxekoak.



Aroa Agirrezabal
Abuztuaren 2an 17 urte.
Urte askotarako! Etxekoak.



Aitziber Ferreiro
Abuztuaren 8an 10 urte.
Urte askotarako! Aita eta ama.



Joanes Plazaola
Abuztuaren 18an 4 urte. Urte askotarako! Garazi eta familiako denak.



Irene Markiegi
Abuztuaren 29an 7 urte.
Urte askotarako! Anaia eta gurasoak.



Jon Barragan
Abuztuaren 5ean 3 urte. Urte askotarako! Etxekoak; batez ere, Ane.



Leire Agirre
Irailaren 8an 3 urte.
Urte askotarako! Familiakoak.



Maialen Alkorta
Abuztuaren 2an 14 urte.
Urte askotarako! Familiakoak.



Iokin Lazpiur
Irailaren 2an 10 urte. Urte askotarako! Alazne, Amagoia, Asier eta etxekoak.



Ion Alberdi
Irailaren 1ean 6 urte.
Urte askotarako! Familiakoak.



Christian Moreno
Irailaren 12an 4 urte. Urte askotarako! Gurasoak eta arreba Miriam.



Lorea Madinabeitia
Irailaren 9an 4 urte. Urte askotarako! Idoia eta etxekoak.



Ioldi
Irailaren 14an 5 urte.
Urte askotarako! Familiakoak.



Mikel Soto
Abuztuaren 11n 3 urte.
Urte askotarako! Etxekoak.



Mainer Ramudo
Irailaren 7an 2 urte.
Urte askotarako! Familiakoak.



Haritz Diaz
Abuztuaren 28an 7 urte.
Urte askotarako! Etxekoak.



Mireia Franco
Irailaren 9an 3 urte.
Urte askotarako! Etxekoak eta Ander.



Amaia Alzelai
Irailaren 14an 5 urte. Urte askotarako! Oihana eta etxekoak.

hildakoak

BERGARA

Paulino Igartua Arkarazo
Uztailak 22, 73 urte
Vicente Garitano Iñurrategi
Uztailak 23, 90 urte
Angel Balzategi Olabarria
Uztailak 24, 83 urte
Francisca Beitia Belar
Uztailak 30, 89 urte
Urbana Agirrezabal Lamariano
Abuztuak 5, 94 urte
Eustaquia Egizabal Olabarria
Abuztuak 10, 88 urte
Angel Luis Fernandez Torres
Abuztuak 10, 49 urte
Francisco Gantxegi Unamuno
Abuztuak 10, 89 urte
Sebastian Laskurain Zabaleta
Abuztuak 11
Elena Gabilondo Aizpiri
Abuztuak 18, 87 urte
Pedro Maria Pagnon Alberdi
Abuztuak 23, 60 urte
Mari Paz Alberdi Arribas
Irailak 5, 55 urte
ANTZUOLA
Benito Lamariano Agirre
Uztailak 31, 90 urte
Jose Luna Aguayo
Abuztuak 2, 74 urte

jaiotakoak

BERGARA

Mikel Asier Linazisoro Molina
Uztailak 16
Irene Azkargorta Juaristi
Uztailak 20
Gorka Azkargorta Linazisoro
Uztailak 21
Oier Lopez Zezeaga
Uztailak 23
Aitor Rubio Hidalgo
Uztailak 24
Olatz Ruiz de Larramendi Lete
Uztailak 29
Idoia Agirrezabal Urrutia
Uztailak 30
Odei Gomez de Balujera Oregi
Abuztuak 3
Jon Maiztegi Etxaniz
Abuztuak 4
Naiara Roman Garcia
Abuztuak 10
Luken Arriola Gutierrez
Abuztuak 14
Garazi Gallastegi Arevalillo
Abuztuak 14
Carla Pera Etxeberria
Abuztuak 22
Nora Heis Zapata
Abuztuak 23
ANTZUOLA
Irati Gardoki Larrea
Uztailak 30
Eukene Rodriguez Larrañaga
Abuztuak 16

URTEURRENA

**Daniel
Kortabarria Barrena**

Lehen urteurreneko meza
domekan, irailak 10,
eguerdiko 13:00etan, Santa Marinaran.



*Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

URTEURRENA

Maria Mujika Barrenetxea-Arando
Pedro Gardokiren alarguna

Lehen urteurreneko meza
domekan, irailak 10,
eguerdiko 13:00etan, Santa Marinaran.



*Ez da hiltzen desagertzen dena,
baizik abazten dena,
eta guk ez zaitugu sekula abaztuko.*

*Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

ESKER ONA

**Mari Paz
Alberdi Arribas**

Gasteizen hil zen
2000ko irailaren 5ean,
55 urte zituela.



*Hileta-elizkizunetara joandakoei
eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno
eskerrik asko sendikoen izenean.*

URTEURRENA

**Juliana
Retolaza Arantzabal**

Lehen urteurreneko meza
domekan, irailak 10,
goizeko 11:00etan,
Angiozarko San Migel elizan.



*Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

ESKELA

**Angel Luis
Fernandez Torres**

Gasteizen hil zen 2000ko
abuztuaren 10ean, 49 urte zituela.



Bere oroimeneko meza
domekan, irailak 10,
eguerdiko 13:00etan, Santa Marinaran.

*Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

URTEURRENA

**Ignacio
Gantxegi Aranzabal**

Lehen urteurreneko meza
domekan, irailak 10,
eguerdiko 13:00etan, Santa Marinaran.



*Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

ANTZERKIA

► **Taun-Taun** taldearen **"Txio-Txioka"** antzezlanaren haurrentzat, gaur, eguakitza, 19:00etan Novedades aretoan.

► **"Correfoc diables"** izenburuko antzezlanaren bihar, zapatua, 22:30ean Elorriko plazan. Domekan, 19:00etan, **"Maimur teatroa"** 19:00etan toki berean.

MUSIKA

► **Jam**. Gaur, eguakitza, **No fun at all** eta **No use for name** taldeak 21:30ean. Datorren eguakitzean, hilak 15, **Shelter**, **Ensign** eta **Nil** taldeak 22:00etan.

► **Ortzadar** taldea bihar, zapatua, 20:00etan San Martin plazan.

► **Basque Country** bihar, zapatua, 22:30ean Arraten, Eibarren.

ERAKUSKETAK

► **Eluska Zabaloren** margoak Nahikarin.

LEHIAKETAK

► **Kirol argazkien X. Lehiaketa**. Zuribeltzeko edo koloretako argazkiak onartuko dira eta lanak entregatzeko epea irailaren 13an bukatuko

ERAKUSKETA

M. Antonia Martinez

- Irailaren 8tik 17ra
- Kultura Etxean

Maria Antonia Martinez bilbotarraren margo erakusketa zabalduko da gaur, arratsaldean, Kultura Etxeko erakustokian. Gipuzkoan egiten duen bere lehenbiziko bakarkako erakusketan 18 oleo eta 2 akuarela zintzilikatu ditu Maria Antoniak.. Bergaran duen lagun baten bitartez, erakusketa egiteko aukera suertatu zaio. Bilboko erreproduzio artistikoen museo-ko ikaslea, Euskal Herrian zehar izaten diren pintura lehiaketetan parte hartzeko ohitura dauka eta orain dela gutxi Sorraluzen eta Medina de Pomaren (Burgosen) lehen saria eskuratu du.

Egunero bi orduz aritzen da margotzen eta berak dioskunez, "hasieran hobby moduan hartu nuen margolaritza baina orain serioago hartzen nabil, ikaragarri gustatzen zaidalako". Kultura Etxeko erakusketan

Bilboko itsasadarra eta alde zaharra, Guggenheim museoa, Algortako Trinitarioen eliza edo Bergarako paisaiak erakusten ditu. Koadroetako asko lehiaketetan eginda-koak dira. Paisaiekin batera, figurak ere lantzen ditu Maria Antoniak eta bere estiloa definitzerakoan Alemaniako expresionismoaren eragina aitortzen digu; "expresionista alemaniarren eta klasikoaren lanak interesatzen zaizkit gehien eta piskanaka-piskanaka expresionismoaren estiloarekin identifikatuz joan naiz". Koadro biziak dira, formato handikoak gehienak. Ikusleengana heltzea da Maria Antonia-aren helburu nagusia; "ea nire lana gustatzen zaien... Guztioi gustatzen zaigu jendeak gure lana errekonozitzea".



Argazkian, Maria Antonia Martinez bere koadroetako baten ondoan.

da. Lehiaketaren X. urteurrena dela eta, aurkeztutako argazki onenekin katalogoa argitaratuko da. Argibide gehiago Kirol Zerbitzuan (943 77 91 67) edo 943 76 30 90 zenbakian.

► **Gazteak eta arrazakeria XI. argazki lehiaketa**,

Debagoieneko 14-18 urte bitarteko gazteei eta 19-35 urte bitarteko edozeini zuzenduta. Jorratu beharreko gaia gazteak eta arrazakeria izango da. Zuribeltzeko zein koloretako kategoriak bereiztuko dira eta lanak aurkezteko epea urriaren 11n bukatuko da. Argibide

gehiago 943 77 00 65 zenbakian.

► **Jokin Zaitegi XIV. Itzulpen Laburren sariketa**, Arrasateko AED elkarteak deituta. Aurtengo gaia "Ura" izango da eta testuaren luzerak 15-30 orrialde bitartekoa izan

**A
R
R
A
N
O**

Taberna

Kruz Gallastegi BERGARA

**INFERNUKUA
TABERNA**

Masterreka 23 ☎ 943 76 18 49

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi, txerri, bildots,
untxi eta baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8 ☎ 943 76 15 09

behar du. Irabazleak 200.000 pezetako saria jasoko du eta bigarren saria 100.000 pezetako izango da. Lanak aurkezteko epea urriaren 31n bukatuko da. Argibide gehiago 943 77 12 28 telefono zenbakian.

IKASTAROAK

► **Yoga eta brikolaia** ikastaroak emakumeei zuzenduta, Udaleko Osasun, Enplegu eta Gizarte arazoetarako batzordeak antolatuta. Izen-ematea (3.000 pezeta) EPA-HHI ikastetxean (Barrenkale 33, 2. pisua) irailaren 11tik 15era bitartean, 10:00etatik 13:00etara. Yoga ikastaroa irailaren 25ean hasiko da eta brikolaia 26tik aurrera emango da.

► **Moises Azpiazu** dantza taldeak haurrei zuzendutako dantza ikastaroak antolatzen ditu. Era berean, helduendako ikastaroak ere izango dira zapatuetan. Argibide gehiago 943 76 15 40 zenbakian.

DEIAK

► **EH.** "Burujaetza eta bakea" lemapean bihar, zapatua, Bilbon egingo den manifestaziora joateko autobusa 16:00etan aterako da Frontoitik. Izen-ematea Arranon.

► **EAJ.** Irailaren 24an Alderdi Eguna ospatuko da Salburuako zelaietan, Gasteizen. Autobus edo bazkari txartelak jasotzeko izen-ematea Batzokian edo 943

76 47 00 telefonoan domerakara arte zabalik.

► **San Martinetako nagusien danborradan** bandera eramaileak falta dira. Bandera aterako duten elkarteak saiatu beharko dira nork eraman behar duen aurkitzen. Argibideak: 943 77 91 58.

OHARRAK

► **San Martin ikastetxea.** 3 urtetik 6. mailara bitarteko ikasleek astelehenean, hilak 11, emango diote hasiera ikasurte berriari, 9:00etan.

► **Begarako Udal Euskaltegiak** euskara ikastaroak (maila guztiak) antolatuko ditu ikasurte berrian. Matrikulatzeko epea irailaren 15era arte zabalik. Argibideak 943 76 44 53 zenbakian.

► **Begarako Helduen Heziketa Iraunkorreko** ikastetxean matrikula epea zabalik dago. 943 76 44 52.

► **AEK Akulu** euskaltegian matrikula epea zabalik irailaren 29ra arte. Argibideak 943 76 05 18 telefonoan.

KINTADAK

► **1948an** jaiotako enafaria Txuringon irailaren 30ean, 21:30ean. Joateko eta etortzeko urbanoa egongo da. Izen-ematea Euskadiko Kutxan irekitako kontu korrantean.

Z I N E A

KARTELDEGIA

BERGARA. Novedades
Mision imposible
Eguakitza: 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:30.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena, ikuslearen eguna: 19:30.

ARRASATE. Alai zinema
Una historia verdadera
Eguakitza: 22:00.

Mi perro Skip
Zapatua: 17:00.
Domeka: 17:00.

El patriota
Zapatua: 19:00, 22:00.
Domeka: 19:00, 22:00.
Astelehena: 19:00, 22:00.
Martitzena, ikuslearen eguna: 19:00, 22:00.

EIBAR. Unzaga
60 segundos
Eguakitza: 22:15.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.
Domeka: 17:00, 19:45, 22:15.
Astelehena: 19:30, 22:15.
Martitzena: 19:30, 22:15.
Eguaztena, ik. eguna: 19:30, 22:15.

EIBAR. Rialto
El hombre sin sombra
Eguakitza: 22:15.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:30, 22:15.
Martitzena, ik. eguna: 19:30, 22:15.

ELORRIO. Arriola
Venus salon de belleza (La firma) laburmetraia aurretik)
Astelehena: 20:15.

OÑATI. Santana
El patriota
Eguakitza: 22:30.
Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

AZKOITIA. Baztartxo
El ultimo escalon
Eguakitza: 22:00.
Zapatua: 22:00.
Domeka: 17:15, 19:30, 22:00.
Astelehena: 20:00.



MISION IMPOSIBLE 2

Zuzendaria: John Woo.
Aktoreak: Tom Cruise, Dougray Scott, Thandie Newton.
▲ 13 URTE

Ethan Hunt agenteak (Tom Cruise), informatiko bikain baten laguntzaz, berriro ere egoera arriskutsuenei aurre egin beharko die, gaizkile batetik bere asmoak bete ez ditzan. Efektu berezi aipagarriak dituen filme honek izugarritzko arrakasta izan du takilan, Tom Cruise aktorearen *gantxoari* esker batik bat.

EL HOMBRE SIN SOMBRA

Zuzendaria: Paul Verhoeven.
Aktoreak: Kevin Bacon, Elisabeth Shue. ▲ 13 URTE
Paul Verhoeven zuzendari holandarrak (*Instinto basico*) gizon ikusinezinari buruzko filmea errodatu du. *Sebastian Cane* izeneko zientzilaria (Kevin Bacon) ikusezintasuna aztertzen ari da, animaliekin esperimentuak eginez. Bere buruarekin ere emaitza harrigarriak lortuko ditu...

BERRIGARAK ez du gerta litezkeen emanaldi aldaketen erantzukizunik.

📍 Ikastaro teoriko trinkoak euskaraz eta gaztelaniaz
📍 Ziklomotorreko lizentzia astebetean. AZTERKETARIK GABE!
📍 Izena ematean, %10eko deskontua Gazte Txartelarekin
Gaindi ezazu autoaren azterketa teorikoa 16 urterekin!

ARRAÑAGA
A U T O E S K O L A

Tf. 943 76 16 63

Miguel Altuna institutuak goi mailako heziketa ziklo berria eskainiko du aurten: plastiko eta kautxogintza. Gaur, eguakitzatza, ekingo diote 22 ikaslek. Ziklo hau, institutuak Matz-Erreka, Antzuolako enpresarekin sinatutako lankidetzaren baten ondorioa da.

G. Lankidetzaren baten ondorioa den goi mailako heziketa zikloa eskainiko duzue estreinatzen eskolan.

E. Hitzarmena ez da soilik zikloa martxan jartzeko izan. Hitzarmena askoz zabalagoa da, eta zikloa testuinguru zabal horretan kokatzen da.

Hitzarmena gauzatzeko, orain urtebete baino gehiago hasi ginen lanean. Orain arte, ikasleek enpresetan egiten zituzten praktikak ez ziren derrigorrezkoak. Orain, aldiz, ziklo formatibo berrietan, praktika horiek modulo oso garrantzitsuak dira. Lehen praktiketan zeuden ikasleek astean hiru edo lau ordu egiten bazituzten, ziklo berriekin zortzi ordu egin behar dituzte egunean, eta formakuntza hori ebaluatu egin behar da. Honek, praktiketako ikasleak hartzen dituzten enpresari ere hainbat aldaketa ekartzen dizkio. Honekin guztiarekin, orain urte eta piku, enpresarik enpresa joan ginen aldaketa hauek azaltzen.


G. Horiertako bat Matz-Erreka zen.

E. Bai. Matz-Errekara heldu ginenean, eurek elektriko eta mekanikoez gain, plastikogintzan aritzen diren adituen beharra dutela esan ziguten. Hala ere, guk ez geneukan plastikogintzarik Miguel Altuna institutuarekin. Hori horrela izanik,

JOSE MARI LARRAÑAGA

Miguel Altuna institutuko zuzendaria

“Matz-Errekarekin sinatutako lankidetzaren baten ondorioa da”



Jose Mari Larrañagarentzat oso garrantzitsua da lankidetzaren baten ondorioa.

eskolan modalitate berri hori sartzea posible izango litzatekeen pentsatzen hasi ginen. Gaia aztertu ostean, eskolan plastikogintza eskaintzea interesgarria dela erabaki genuen, batez ere, etorkizuna duen arloa delako. Urtebete aritu gara aztertzen. Horrela, pasa den urteko urtarrilean, Lakuan, FPko zuzendaritzaren proiektu

“Plastiko eta kautxogintza zikloa gainditzen dutenek, Matz-Errekan edo inguruko lantegietan lana izango dute, seguruenik”

tua aurkeztu, eta baiezkotzea maiztean eman ziguten.

G. Matz-Errekarekin sinatutako hitzarmenak plastiko eta kautxogintza heziketa zikloaz gain testuinguru zabalagoa duela aipatu duzue arestian.

E. Gure ikasleez gain, Matz-Erreka enpresako langileak ere formatuko ditugu. Kualifikazio sistema onartuta dago, eta horren arabera, enpresetako langileek modulok ikasi beharrean, eskoletan bezala formatuko dira; zikloa. Matz-Errekako 38 langile formatuko ditugu. Hauetako batzuk erdi mailako zikloa egingo dute eta beste batzuk goi mailakoa.

G. Eta eskolan zenbat ikasle eman du izena?

E. Zikloa plastiko eta kautxogintza izango da, eta 22 ikasle hasiko dute ikasurtea. Ziklo hau eskaintzen dugun lehenengo aldia denez ikasle nahikoa iruditzen zaigu.

G. Zergatik egin du astur hau Miguel Altunak?

E. Orain arte, mekanika, elektrizitatea eta administrazio arloak jorratu ditugu, eta planteatu ere ez genuen egin plastiko eta kautxogintzan sartzea. Baina Matz-Errekako ordezkariekin egon ostean, tentatu egin gintuen asmoak. Plastikoen mundua gero eta hobeto dago, Antzuolako enpresak zabaltzeko proiektuak ditu eta jende kualifikatu gutxi dauka. Hori horrela izanik, eskolan prestatutako jendeak lana izateko aukera du Matz-Errekan, zein inguruan horretan dirauten beste enpresa askotan. Bestalde, arlo honi buruzko eskolak hurbilen Markinan ematen dira.

Guztia aztertu ondoren, oso ideia interesgarria iruditu zitzaigun eta ekin egin diogu.

Itunaren apurketak aldaketak eragin ditu Udal Gobernuan



EHko kideak Gobernutik kanpo geratu dira eta batzordeburu ere ez dira izango

Uztailaren 20an apurtu egin zen EAJ, EA eta EH-ren arteko gobernu akordioa. Ondorioz, EH alderdia gobernu batzordetik kanpo geratu da eta batzordeburu ziren kideek ere utzi egin behar izan diote karguari. Haustura gertatu eta hurrengo egunean bertan osatu zen Gobernu Batzorde berria eta ardurak banatu.

EAJ alderdiak ETaren biolentzia gaitzetzeko mozioa uztailaren 20an aurkeztu zuen Gobernu Batzordean. EAJ bat egin zuen mozioarekin. EHk, aldiz, ez. Ondorioz, Udal Gobernutik kanpo geratu da, oposizioa pasatuz, eta batzorde informatiboetako buru izateari ere utzi behar izan diote.

GOBERNU BATZORDEA

1999ko irailean EAJ, EA eta EHk gobernu ituna sinatu zutenetik, joan den uztailera arte, hiru alderdietako sei ordezkari osatzen zuten

	Gobernu Batzordeko aldaketak		Batzorde Informatiboetako aldaketak		
Orain arte	 Mikel Eguren	 J. M. Garitano	 Aitor Aranzabal <i>Ingurumena</i>	 Yolanda Juaristi <i>Euskara</i>	 Mikel Eguren <i>Hezkuntza</i>
	Orain		 J. A. Etxeberria	 N. Amaia Zabala	 J. A. Etxeberria <i>Ingurumena</i>

Gobernu Batzordea: EAJko Victoriano Gallastegi, Juanjo Arrieta eta Koldo Pereirak. EHko Jesus Mari Garitano eta Mikel Egurenak, eta EA alderdiko Kontxi Irizarrek.

EH Gobernutik kanpo utzita, EHko bi ordezkariak lekua, EAJko Nere Amaia Zabala eta EAJko Jose Antonio Etxeberriak hartu dute.

BATZORDE INFORMATZAILEAK

Batzorde informatzaileen kasuan, zazpi daude. Horieta bat, Kulturakoa, beste lau azpibatzerdetan banatu da, eta lau hauetako batean, Euskara eta Hezkuntza, batzordeburu bana egon da: Euskararen Yolanda Juaristi eta Hezkuntzan Mi-

kel Eguren, biak EHkoak. EH Gobernutik kanporatua izan ondoren, bi azpibatzerdeak batu eta EAJko Koldo Pereira da Euskara eta Hezkuntzako batzordeburu. Ingurumen batzordeburu ere EHko kide den Aitor Aranzabal izan da uztaila arte. Orain, EAJko Jose Antonio Etxeberriak du kargu hori.

Artekalea itxita arketa berriak jarri bitartean

Artekaleak itxita jarraituko du San Martin jaiak arte. Abuztu hasieran itxi zuten kalea eta oraindik ere datorren astean horrela egongo da. Ixteko arrazoiak, zoluko arketak izan dira. Izan ere, denboraren poderioz, lurra emanda zegoen eta arketako estalkiak zarata ateratzen zuten ibilgailuak euren gainetik igaroz gero. Auzokideek ere hainbat kexu aurkeztu dituzte zarata dela eta Udalean. Hori horrela izanik, Artekalean arketa berriak jarri dituzte.



San Martinak ate-joka

Abuztuaren bueltan, San Martin jaien atarian gaude. Bihar, zapatua, feria izango dugu, eta, datorren asteburuan jai giroan murgiltzeko hainbat ekitaldi jaso ditu egitarauak. Musika, antzerkia, dantza... norberaren aukeran.

EGUAKITZA 8

19:00 Taun-Taun taldearen Txio-txioka antzezlan, haurrentzat Novedades aretoan.

ZAPATUA 9

09:00 XX. Haur eta Gazteen Plastikak Sariketa 15 urtez behar koentzat Beart elkarteak antolatuta. Bolu kalea 49. Sari banaketa eguerdiko 13:00etan izango da.

10:00 Barazki, fruitu, gazta, etxeko lora eta lora moztuen lehiaketa San Martin plazan.

12:30 Bergarako odolosteen dastaketa Bedelkarrek antolatuta. Jose Jabier Igarza, Sebastian Imaz, Jon Leturia, Jose Luis Leturia, Josu Leturia, Luis Mari Rezola eta Pello Urzelai harakinek emango dituzte prestatuko diren odolosteak.

17:00 Okela gisatuaren Bergarako I. Lehiaketa San Martin plazan.

17:30 Herri kirolak San Martin plazan.

19:00 Buruhandi, kiliki eta erraldoien kalejira, Udaltxistulari Bandak eta Elgoibarko Dultzaineroek lagunduta.

Ondoren, bonba japoniarrak haurrentzat San Martin plazan.


20:00 Ortzadar taldearen musika saioa San Martin plazan.

21:30 Herri afaria. Txartelak harategietan daude salgai.

Egunean zehar Xafre eta Zaharra trikitilariak alaituko dituzte kaleak; baita gaueko herri afaria ere.

EGUENA 14

22:30 Markeliñe taldearen "Aló Europa" kale antzerkia, San Martin plazan.



Bihar, zapatua, herriko odolosteak dastatzeko aukera egongo da.

EGUAKITZA 15

19:00 Trapu zaharra taldeak, "Paquetillo" kale antzerkia aurkeztuko du.

19:30 Bikoteen Dantza Askatuko XVI. Txapelketa, Moises Azpiatzuren oroimenez Udaltxistulari Bandarekin.

22:30 Nagusien Danborradaren irteera, Udaltxistulari Bandak lagunduta. Ibilbidea: Seminarioko patioa, Irizar, Barrenkalea, Bidekurutzeta, San Pedro, Artekalea, Arruriaga, Barrenkalea eta San Martin plaza. Bukarera, hainbat urtetan Zuloa elkarteko danborrada zuzendu izan zuen Juan Miguel Usabiagari omenaldia egingo zaio.

Ondoren, Egan taldearekin dantzaldia San Martin plazan.

ZAPATUA 16

San Martin Agirre eguna

08:00 Diana Udaltxistulari Bandarekin.

08:30 Sokamuturra herriko kaleetan zehar.

11:00 Meza Nagusia San Pedron. Udaltxistulari Korporazioa joango da, Udaltxistulari Banda eta Udaltxistulari Bandarekin batera.



Hilaren 16an, Haurren Danborrada ospatuko da.

11:00 San Martin plater tiraketa, antzinako abankargazko armeekin, Gorkalo kantina inguruan.

12:00 Kalejira Udaltxistulari Bandarekin.

12:30 Udaltxistulari Bandaren kontzertua, San Martin plazan.

Egitaraua:

- "El abanico". Pasodoblea. A. Javaloyes.

- "Marcha eslava".

P. I. Tchaikowsky.

- "A Highland Rhapsody"

J. V. der Roost.

- "Robin Hood" Soinu banda. M. Karmen.

- "San Martin". Euskal estanpak. M. Gz. Bastida.

16:00 Euskal Herriko VI. Goiti-behera txapelketa. Asentziotik Angiozarrera.

16:30 XI. San Martin herri krosa, herriko kaleetan zehar, San Martin plazatik irtenda.

17:00 Profesional mailako pilota partidak, Udaltxistulari Bandarekin.

19:00 Haurren danborrada, Musika Eskolako Bandarekin.

Ibilbidea: San Martin plaza, Bidekurutzeta, San Pedro, Artekalea, Arruriaga, Barrenkalea eta San Martin plaza. Danborradan Aranzadi, Mariaren Lagundia eta San Martin eskoletako ikasleek parte hartuko dute.

20:00-21:00 Dantzaldia, Paradigma orkestrarekin, San Martin plazan.

22:00 Suzko erroberak Agorrosinen, Pirotecnia Zaragozana etxearen eskutik.

23:00 Rock kontzertua, Zea Mays taldearekin, Fraiskozuri plazan.

Ordu berean, dantzaldiaren jarraipena, Paradigma orkestrarekin, San Martin plazan

DOMEKA 17

09:30 Erreileno eta tostoien kofradiaren I. Batzar Nagusia

Egitaraua: **09:30** Kofradeei ongietorria, Udaltxistulari Bandarekin.

10:30 Zeremoniako jantziekin, desfilea Udaltxistulari Bandak lagunduta.

11:00 I. Batzar Nagusia, udaletxeko pleno aretoan.

11:45 Ohorezko aurrekua Udaletxeko arkupeetan, Xamatx dantza taldearen eskutik.


12:00 Herri desfilea, Udaletxetik San Pedro elizaraino, txistulariek eta txarangak lagunduta.

12:30 Meza Nagusia. Aritzeta Abesbatzak abestuko du.

13:45 Desfilea, San Martin plazaraino. Ondoren, Xamatx dantza taldearen emanaldia.

14:30 Bazkaria

19:00 Naturgas-en lotutako globoan igoera, Seminarioko patioan.



Batzuek gorbata ere jantzen dute.



Ohi den bezala, San Martin plaza herriko barazki, fruitu, lora eta gaztaz beteko da.

Haragi-gisatu lehiaketa San Martin ferriako nobedadea

Bihar, zapatua, egingo da San Martin feria. Urtero bezala, barazki, fruitu, lora eta gazta lehiaketa izango dira ferriako ikuskizun nagusiak. Azokari 10:00etan emango zaio hasiera.

Eguerdiko 12:30etik aurrera, San Martin Agirre plazan Bergarako odolosteak dastatzeko aukera izango da, eta 17:00etan, lehenengo haragi-gisatu lehiaketa egingo da. Hauxe da, San Martin ferriak aurten izango duen berritasunetako bat.

HARAGI-GISATUA

Bedelkarrek antolatu du haragi-gisatu lehiaketa. Azken urteetan herriko harakinen eskutik Seminarioko patioan txekorra burduntzian erretzea ohitura bihurtzen hasita zegoen, ondoren, herri afaria egiteko. Aurten, txekorra beharrean, haragi-gisatu lehiaketa antolatu dute, 17:30ean San Martin Agirre plazan. Prestatutako lapikoak 21:30ean Seminarioko patioan egingo den afarian jango dira.

Bestalde, 17:30ean, herri kirolak izango dira San Martin Agirre plazan. 19:00etan buruhandi, kiliki eta erraldioen kalejira eta gauean Ortzadar taldearen saioa.

Azoka, bost sailetan banatuko da eta bakoitzean lehiaketa bat egongo da: barazki, fruitu, gazta, lora moztuak eta etxeko andrendako lora lehiaketa. Epaimahaia 10:00etan pasatuko da eta salmenta 10:30ak aldera hasiko da, epaimahaiaren erabakia jaso ondoren.

Udalaren oharra zergen inguruan

Udalak herritar guztiei jakinarazten die zabalik dagoela 2000ko Ondasun Higiezinaren Gaineko Zergaren eta Ekonomia Jardueren gaineko Zergaren errezi-boak ordaintzeko epea. Erreziboan ordainketa banketxeren batean helbideratuta duten zergadunei, banketxe bidez bidali eta kobratuko zaie. Erreziboak helbideratu gabe dituztenek, etxean jasoko dute, ondorengo egunetan, ordainketa egiteko behariko duten agiria. Agiriarekin edozein banketxe edo Udal bulegoetatik pasa daitezke ordainketa egiteko. Epea azaroaren 10a arte luzatuko da.

Kontzentrazioa Udaletxe aurrean

Abuztuaren 30ean, eguerdiz, berrogeita hamarren bat lagun bildu zen Udaletxe aurrean Manuel Indiano, ETak joan zen astean, Zumarragan, hildako PPko zinegotziaren atentatua gaitzesteko.


Mobilizazioak abuztuan

Abuztuaren 7an Boluetan gertatutako leherketaren ondorioz, ETako lau kidek, Patxi Errementeria markiniarrak, Ekain Ruiz hernaniarrak eta Urko Gerrikagoitia eta Zigor Aranberri durrangarrek bizia galdu zuten.

Leherketaren ondorioz hainbat iturrik zabaldu ditako berrien arabera, Antxon Sasiain bergararren izena ere aipatu zen hildako gazteen artean.

Hasierako nortasun nahasketa horren ondoren, lau hildakoak arestian aipatutako gazteak direla jakin zen. Ez, aldiz, Antxon Sasiain bergararra.

Gertakari horren ondorioz, mobilizazioak egin ziren hainbat herritan; baita Bergaran ere: abuztuaren 8, 9 eta 10ean 300 bat lagun bildu ziren egindako manifestazioetan.



Berrigara

420 zenbakia.
2000ko irailaren 8a.

Irizar jauregia. Barrenkalea 33.
20570 Bergara.
Telefonoa: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta elektronikoa:
berrigara@topagunea.com
Argitaratzailea: JARDUN Elkarteak

Zuzendaria: Edu Mendibil.
Erredakzioa: Monika Belastegi.
Aintzane Irizar, Edu Mendibil.
Maketazioa: Iñaki Iturbe.
Publizitatea: Uxue Zabaleta.
Harpidetza: Itziar Kortabarria.
Testuen zuzenketak: Iban Arantzabal.
Erredakzio kontseilua: Eneko Azkarate,
M. Angel Elkorobereziabar, Alex Labaien,
Estepan Plazaola.
Komikiak: Unai Azkarate, Oihan Vega,
Usoa Mendikute, Gorka Ortega &
Jon Alvarez, Bittor Rodriguez, Alex Ugalde.
Kolaboratzaileak: Luis Mari Agirre,
Antxon Agirre Sorondo, Joxean Azkarate,
Juan Martin Elexpuru, Josu Okina.
Banaketa: Txantxangorri taldea.
Inprimategia: Gertu Koop. Elk.
(Zubillaga. Oñati).

Azaleko argazkia: Berrigara

Tirada: 5.300 ale.
Copyright: BERRIGARA.
Lege gordailua: SS 50/91.
ISSN: 1130-6599

BERRIGARA ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen eta
iritziaren erantzukizunik.

Erakunde hauen laguntza:



Bergarako
Udala



Gipuzkoako
Foru
Aldundia



Eusko
Jauriritzako
Kultura saila

gutunak

Gutunak Berrigarara helarazteko: Berrigara astekaria, Irizar jauregia, Barrenkalea 33. 20570 Bergara.
Faxez: 943 76 29 77. Identifikatu gabeko mezurik ez da onartuko.

TXAKURREN ARAUDIA

Oker ez banago, Bergarako Udalak araudi bat kaleratu zuen txakurrek kalean uzten dituzten zikinen gainean, txakurren jabeek euren animalien kakak batzeko eskatuz. Ez dakit noraino betetzen den aipatutako araudia, behin baino gehiagotan tokatu zaidalako kaleak nahiko zikin ikustea. Beraz, txakurrak dituztenak zintzoago jokatzea derrigorezkoa ikusten dut, herritar guztion onerako izango delakoan. Kontuan izan behar da ume asko izaten direla jolasean txakurrak ibiltzen diren lekuetan eta beraz higienezko arazoari duen garrantzia eman behar zaio. Udaltzaingoari edo dago-kionari aipatutako araudia betearazteko neurriak har ditzala eskatu nahi diot leerro hauetatik.

J. Garcia



ZINEA ETA ORDUTEGIA

Astelehenean Bergarako Novedades aretoan izan nintzen "Gladiator" filmea ikusten. Filmea arratsaldeko zazpi terdietarako iragarrita zegoen baina zertxobait lehenago hasi zen eta ez da Novedadesen horrelako zerbait gertatzen zaidan lehenengo aldia. Ordurako heldu arren, ikusle asko pelikula hasita sartu ginen zainera. Ez dakit zein den horrela jokatzeko arrazoia baina uste dut ordutegia errespetatzeko dagoela. Ikusleenganako arduragehiago izatea eskatu nahi nieke Novedadeseko arduraduneri: batzuetan filmearen zati batzuk nabarmen desenfokaturatu botatzen dituzte, beste batzuetan (neguan sarritan tokatu zaidan bezala) berogailua ez dute pizten eta azkenaldian ordutegiaren arazoak. Gero herriko jendeak zinea ikustera hiriburuetara

jotzen duela kezkatuko dira! Ea kurtsio berri honetan pelikulak kalitatez ikusteko aukera izaten dugun. Bestalde, hiriburuetan estreinatzen diren pelikulak Bergarara lehenago ekartzea ere eskertuko genuke.

Pedro Sanchez

tira biraka usoa mendikute



atrebentzia ezpada

bai, esan!

Zer moduz oporretan? Nun egon zara? Honezkero eskolara bueltatzeko gogua be edukiko dozu, ezta?



Markel Castelo

Bueno; Pirineotan egon gara kanpinian. Eskolan hasteko ez daukat bape gogorik, oso aspergarrixa da eta.



Ugaitz Iruretagoiena

Lanzaroten egon naiz astebete gurasuekin, eta oso ondo ibili naiz. Ez daukat eskolan hasteko gogorik.



Alatz Etxeberriarteun

Ondo; Errioxan egon naiz lehengusu batzuen etxian. Eskolan hasteko gogua badaukat, oporretan pixkat aspertu be egin naiz eta.



Uxue Arantzabal

Pragan eta Budapestean egon naiz. Eskolarako gogua badaukat; udan ondo pasatzen da, baina batzutan aspertu be egitten da.



Ainhoa Eguren

Disneyland Parisen egon naiz. Gasteizen, hondartzan eta hemen inguruan be ibili gara. Eskolara bueltatzeko gogo haundirik ez daukat.



Maddi Laskurain

Galizian egon naiz oporretan, eta ondo pasatu dot. Eskolara bueltatzeko ez daukat gogorik; oporretan askoz hobeto pasatzen da.



Gertaerak salatu edo txalotzeko: 943 76 03 97.
Identifikazioa beharrezkoa.



ZABOR BOLTSAK ETXETIK ERREKARA ZUZENEAN

Ignacio Agirre BERRIGARAKO erredakziora hurbildu zitzaigun kexa bat plazaratzeko asmoz. Ignacio Agirrek zabor boltsak etxetik Deba ibaira botatzen dituztenen jarrera salatu nahi du. Berak dioenez, hilero laupabost aldiz tokatu izan zaio Santa Marinako pareko etxeetatik zaborra ibaira botatzen ikustea eta jendeak horrelako portaera izatea lotsagarria iruditzen zaio. Osintxun eta ibai ondoko beste auzo batzuetan ere horrelakoak gertatzen ei dira maiz eta jendeari sentibilitate pitin bat izatea eskatu nahi dio, guztion artean ibai garbiago bat lortu ahal izateko. Okerrera egin beharrean, neurri minimo batzuk hartu beharko genituzke, eta hor dago zabor boltsak batzeko zerbitzua.

POL-POL

Taberna


943 76 07 78



Ur-bide
ITURGINTZA

Zubieta 28, behea
BERGARA
943 76 00 57
630 261 617

MIZPILDI



OKINDEGIA

Matxiategi 1
943 76 72 73

Mizpildi 8
943 76 12 32

Bolu
liburutegia

Enmarkazioak

Ispiluak neurriara

Zurezko artikulua

Bergarako oleo eta

lumatoxak

Koldo Eleizalde 1, behea
Tf. 943 76 70 60

adituen esanetan

Lanera itzulera

Jendeak exajeratu egiten du lanera bueltatu behar izaten dugunean. Ez dago inolako sindromerik jende askok uste duen bezala, ez dago horretarako arrazoirik eta. Gertatzen da gure ohiturak udan zeharo aldatzen direla eta hori dela eta, desajuste batzuk egon daitezkeela, ordutegiari dagokionez, lanera bueltatutakoan. Gehienetan gainera oporretan, deskantsatu beharrean, guztiz kontrakoa egiten dugu (ondo jan eta edan, berandurarte ibili, bidaia luzeak...).

Gorputzak aldaketa horiek nabaritzen ditu eta hasieran kosta egiten zaigu pisikat berriro laneko erritmora ohitzea. Baina oporrak ez dira hain luzeak izaten desajuste hori horren sakona izateko. Dena den, jarraitu beharreko gomendio batzuk ere badaude, itzulera hain gogorra ez gertatzeko: lanean hasi baino egun batzuk lehenago bueltatu betiko ordutegira ohitzen hasteko, inguruko jendearekin kontaktua berreskuratzea ere ondo etorriko zaigu eta,



JOSE RAMON FERNANDEZ

Psikologoa

"Jendeak exajeratu egiten du lanera bueltatu behar izaten dugunean. Ez dago inolako sindromerik jende askok uste duen bezala"

azkenik, esperientziak elkartrukatu lagunekin eta, errutinarako pauso hori leunagoa izan da.

Lantokira itzultzera-koan arazoren bat izaten badugu, normalean opor aurretik arazo hori konpontzeke laga dugulako izaten da. Egia da guztioi aldapan gora egiten zaizkigula hasierako egunak eta batzuetan triste egoten garela oporrak atzean utzi ditugulako. Baina honetan praktikoak izan behar dugu eta badakigu hilabete bateko oporrak izateko beste 11 hilabete lanean

eman behar ditugula. Gertatu daiteke oporretan espero bezainbeste ez disfrutatzea ere. Askotan aurrerapen askorekin hasten gara oporrak gertatzen eta batzuetan gero dezepzioa hartzen dugu. Orduan gure denbora alperrik galdu dugula eta horrelakoak hasten gara pentsatzen eta beharbada ohiko errutinara bueltatzea are eta gogorragoa gertatuko zaigu. Baina lehenbiziko astea edo pasatu eta gero lanera berehala ohitzen gara normalean.



Oporretan gure ohiturak zeharo aldatzen dira eta bueltan ordutegiarekin desajusteak izaten dira.

bergarako errotak



ERROTAERDI

Gipuzkoako boletín ofizialaren arabera 1890. urtearen bueltan bizi zen Errotaerdin Pedro Gallastegi Agirrezabal, 41 urteko errotaria.

1895ean agertzen da errotari moduan Pedro Gallastegi.

Industria sailean uruna egiteko errota moduan dago izena emanda 1927an Francisco Gallastegi Epelaren izenean. Beronek 1939an kuota ordaintzen zuen energia elektrikoa jasotzearen trukean. 1946tik aurrera okindegi moduan erabiltzen zen. 1954an ordaindu zen azkenengoz kuota hori. 1963an utzi zen ordaintzea eta azkena Maria Larrañaga Pildain izan zen.

Errotaerdik bere jardunerako Elgeta erreka urak erabiltzen zituen. Burdinezko hiru sorki zituen errotak eta berau martxan jartzeko hiru harri-pare. 1980an oraindik pare batek funtzionatzen zuen eta okindegiko lanak egiteko nahikoa ziren.

Azkenengo errotaria Nikolas Elgarresta izan zen, 1991an hil zena 89 urte zituelarik.

Errotaerdi San Juan auzunean kokatuta dago, Bergaratik Elgetarako igoera hasten den puntutik ehun metrora.

Errotaerdik Elgeta erreka urak erabiltzen zituen. Burdinezko hiru sorki zituen errotak eta martxan jartzeko hiru harri-pare

Antxon Agirre Sorondo

Inaugurazioa Basalgon

Joan zen **uztailaren 25ean**, Santiago egunean, **Basalgoko Gallastegi baserrira doan bide zati bat** inauguratu zuen lagun talde batek, auzoko jaiak zirela aprobetxatuz. Inguruan **Eibar-Gasteiz** autopistako lanak egiten ari dira eta baserrira heltzeko bide zatia berriztu behar izan zuten orain gutxi. Argazkian ikusten den bezala, **Roman Agirrezabal** osintxurak ohiko zinta moztu zuen, agintarien antzera. Bere ezkerrean **Jesus Iztueta Gallastegi** baserrikoa eta Basalgoko auzo alkatea agertzen da, eta musika ere ez zen falta izan. Argazkiko lagun koadrilak bazkari eder batekin ospatu zuen Santiago eguna.



Sei bergarar Hendaiatik Perpignanera bizikletaz



Jon Alberdi, Lauri Askargorta, Asier Elorza, Xabier Garitano, Xabier Lazkano eta Aitor Murgizu bergararrek **Pirinioetako travesia** egin zuten udan, bizikletaz. Hendaiatik atera eta Perpignanera bitarteko **770 kilometroak gainera zortzi eguntan** bakarrik egin zituzten, uztailaren 22tik 30era hain zuten ere. Zati handiena errepidetik egin zuten eta gauak albergeetan igaro zituzten. Atsedena hartu ondoren, itzulera trenez egin zuten. Paisaiarekin gozatzear gain, kirola egiteko aprobetxatu dute eta sasoi ezin hobean direla erakutsi dute. Argazkian, sei lagunak Tourmaletoko mendatean.

337 milioi Bergarara abuztuan

Joan zen **abuztuaren 12ko Primitivako zozketan bergarar batek 337 milioi** irabazi zituen. **1-15-20-33-37-49** izan zen konbinazio irabazlea eta saridunak eguen eta zapatarako bost apustuko boletoa bete zuen Peñalban, loteriako bigarren administrazioan. 1.000 pezeta jokatu eta 337 milioi irabazi, hori inbertsioa hori!! Argazkian, **Pili Mujika** Peñalbako nagusia banatutako saria iragartzen duen orriarekin. Pilik komentatu digunez, ez da lehen aldia Bergarara, abuztuan, sari potolo bat banatzen dutela, orain dela 15 urte eta duela 3 urte loteriako sari nagusia tokatu baitzen. Adi, beraz, hurrengo abuztuan herrian geratzen direnak...



Iraileko buelta

Ume baten liburuek, guztira, 10.000 eta 22.000 pezeta artean balio dute

Batzuk Aranzadi ikastolara, San Martinera beste batzuk, Mariaren Lagundiara edo Haurtxoa haurtzaindegira. Betiko martxara bueltatzen ari gara guztiok, eta baita herriko umeak ere. Gaur, eguakitza, hasten dira batzuk, eta datorren astelehenean beste batzuk.

Bergaran Lehen Hezkuntzako 4 ikastetxe ditugu: Aranzadi ikastola, San Martin ikastetxea, Mariaren Lagundia, Angiozarko eskola. Aranzadi ikastola da garrantzitsuena haur kopuruari erreparatzen badiogu, izan ere, 839 ikasle ditu. Horietatik 204 Haur Hezkuntzan (2-5 urte bitartekoak), 344 Lehen Hezkuntzan (6-12 urte), 235 DBHn (12-16) eta 56 Batxilergoan (16-18 urte). Batxilergora iristen direnean, 16 urterekin, bi aukera dituzte Aranzadiko ikasleek: batxilergo zientifikoa edo humanistikoa aukeratu dezakete.

Mariaren Lagundia ikastetxeak, ostera, 586 ikasle ditu. Hemen Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, DBH, Goi mailako Heziketa Zikloa eta LH-II ditugu. 93 dira Haur Hezkuntzan ari direnak, 236 Lehen Hezkuntzan eta DBHn 181. Goi mailako heziketa zikloan 50 eta 26 LH-IIan.

San Martin ikastetxean, aldiz, Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza bakarrik eskaintzen dituzte. Beraz, 12 urterekin beste ikastetxe batera joan behar izaten dute ikasleek. Haur Hezkuntzan 170 ume daude matrikulatuta, horietatik 50 aurten hasiko direnak. Lehen Hezkuntzan, berriz, 131 ikasle ari dira. San Martin ikastetxeak, hala ere, baditu beste 3 egoitza, Osintxun, Martokon eta Zabalotegin, hain zuzen ere. Osintxun 2 eta 5 urte bitarteko 11 haur ari dira; Martokon ere badago beste gela bat dago, eta 2 eta 3 urte bitar-

Langile gehienok hilabete, eta ikasleek, berriz, hiru hilabete inguru. Udako oporrak, hala ere, ziztu bizian pasatu zaizkigu guztioi, eta hemen gabilta kurtso berriari martxa hartu nahian. Haur eta gaztetxoei ere gaur bertan hasten zaizkie klaseak Bergaran. Udako oporraldiak lagunei kontatu, liburu berriak lehen aldiz ireki eta irakasle berria ezagutzeko garaia heldu zaie. Gurasoei, berriz, horrek guztiak dakartzan gastuei aurre egiteko garaia.

teko 10 ume daude matrikulatuta; Zabalotegin, berriz, bi gela dauzka: 2 urteko umeentzat bata, eta hirukoentzat bestea, eta guztira 22 ume dabilta bertan.

AUZO ESKOLA BAT ETA BI HAURTZAINDEGI

Gaur egun auzo eskola bakarra gertzen da Bergaran, Angiozar auzoan. Gero eta ikasle gutxiago izaten dituzten arren auzo eskola hauek, urtetik urtera

mantenduz joan da Angiozarko hau, eta gaur egun 10 ikasle ditu, 3 Haur Hezkuntzan eta 7 Lehen Hezkuntzan. Hain ikasle gutxi izanda egoera berezia dute, izan ere, haur guztiak ikasgela bakarrean ari dira ikasten. Irakasleen arabera, hau ez da inolako oztopoia izaten haurrentzat, kontrakoa baizik. Denak batera egoten dira eta elkarri laguntzen ikasten dute umeek. Irakasleentzat, ostera, hasieran, arazoak sortarazten ditu, antolaketa arazoak batez ere.

Txikiagoentzat, berriz, bi haurtzaindegi ditugu gaur egun Bergaran. Bata Haurtxoa haurtzaindegia da, eta 40 ume joaten dira bertara egunero. Lanean diharduten gurasoentzat aukera ederra dira haurtzaindegiak. Haurtxoara, alde batetik, 3 hilabete eta 3 urte bitarteko umeak joaten dira. Bestetik, 3 urte eta zazpi urte bitartekoentzat beste zerbitzu bat eskaintzen dute, bazkaltzeko eta gurasoak lanetik irten bitartean bertan egon ahal izateko. Bestalde, Mariaren Lagundiako haurtzaindegiak aurten zabaldu ditu bere ateak eta 60 haurrek dihardute bertan.

D EREDUA NAGUSI

Gaur egun Bergaran dauden ikastetxe gehienetan D eredia da dagoen bakarra. San Martin ikastetxea da B eredia eskaintzen duen



Ume asko eskolara itzuli eta bertako lagunekin berriro elkartzeko irrikitan egoten da. ARTXIBOA



Aurtengo ikasturtean 1.700 haur baino gehiago eskolaratuko da Bergarako lau ikastetxeetan. ARTXIBOA

bakarra, eta A eredurik, berriz, ez dago gaur egun Bergaran. San Martin ikastetxearen kasuan, 5. mailararte ez dago B eredurik, eta 5. eta 6. mailetan hiru eredu daude: D eta B ereduak, eta "graduatu mistoa" deritzona, hau da, kanpotik datozen haurrentako eredu berezi bat, euskara ikasiaz eta integratuaz joan daitezten. Eredu berezi honetan bi haur ari dira aurten.

IKASTURTE BERRIA, GASTU BERRIAK

Liburu berriak, matrikula, motxila berriak, harkatzak, boligrafoak, estutxeak, koadernoak...asko dira ikasturte

D eredua (euskaraz) da nagusi herriko ikastetxeetan. A eredurik ez dago

berria behar bezala hasteko erosi beharrekoak. Oporretatik bueltatu orduko gastu gehiegitzo gurasoentzat. Liburuen prezioa aldatu egiten da ikasturtearen edo mailaren arabera, eta baita ikastetxearen arabera ere. San Martin

ikastetxeko gurasoen elkarteak esan digunez, 1. eta 2. mailako haurren liburuek, 10.000 pta inguru balio izaten dute, eta hortik aurrerakoena, 15.000 pezeta. Ikastetxe honen kasuan, hala ere, ez da kuotarik ordaindu behar publikoa baita. Ordaindu behar den bakarra urteko eskola materialari dagozkion 7.000 pezetak dira. Dena dela, Lehen Hezkuntzako liburuen prezioa, bataz-beste, 17.000 pta ingurukoa izaten da herriko liburutegien arabera. DBH eta Batxilergoko liburuen kasuan, prezioak igo egiten dira, 22.000 pezeta inguru ordaindu behar izaten dute eta.<



Marisa Zubillaga. Mariaren Lagundia Ikastolako psikologoa.

"Umeek eskolatik deskonektatzeko beharra dute"

Askotan esaten da ez ote den gehiegitzo hiru hilabeteko oporraldia. Zer deritzozu?

Nik uste dut oporrak txikiak direnean ere, kosta egiten dela eskolara bueltatzea. Opor luzeek, udako oporrek, deskonektatzeko balio dute, eta umeek beharra izaten dute eskolatik deskonektatzeko. Desberdin ere planteatu daitezke oporrak, adibidez, bi hilabeteko opor txiki batzuk izatea, baina nik uste dut oso beharrezkoak direla udako oporrak. Kontuan hartu behar dugu langileek lanaz ahaztu eta denbora librearen beharra duten bezala, umeek ere denbora librearen beharra dutela.

Hala ere, asko dira eskolara bueltatzeko irrikitan egoten diren haurrak.

Nik uste dut denetik dagoela. Baina egia da eskolara gogo biziz bueltatzen den ume asko dagoela. Hori gertatzen da eskola sozializazio-

rako oso gune egokia delako. Umeek eskolan egiten dituzte lagunak, batez ere. Horretaz aparte, gauza berriak ezagutzeko, ekintzak, kirolak, antzerkia eta bestelakoetarako gunerik aproposenak bilakatu dira ikastetxeak eta hori asko eskertzen dute umeek.

Lehen aldiz eskolaratzen diren haurrek, berriz, ez dituzte momentu gozoak bizitzen esperientzia berriarekin, ez al da hala?

Ume txikiaren kasuan oso garrantzitsua da egokitzapena poliki-poliki egitea. Eskolara joan eta inor ez dute ezagutzen, lekua berria da, irakaslea ere berria da beraiantzat. Umearen egokitzapen prozesua errespetatu egin behar dugu, bakoitzak berea dauka eta: badira lehenengo egunetik gustora sentitzen diren umeak. Beste batzuk, ordea, negar besterik ez dute egiten, eta negar hori entzun eta errespetatu egin behar dugu. Umearentzat oso pausu inportantea da eskolaratzea; bakoitzari bere pausuan egokitzen lagundu behar zaio.

Loramendi kirolak


HELDU ETA UMEENDAKO

- **Sudaderak**
- **Kamisetak**
- **Prakak**
- **Zapatilak**
- **Bermudak**

ZATOZ!

%50

San Andres eta Garibain, Arrasaten



Hizkuntza Eskola Ofiziala

Jardiñeta 3 bis, EIBAR Tf. 943 20 06 48

EIBARKO HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALAK matrikula ofizialaren epea irailaren 13tik aurrera izango dela adierazten du. Informazio gehiago 943 20 06 18 telefonora deituz.

OHARRA:

Aurten "Mailakatze-azterketak" egingo ditugu bai frantsesean, bai ingelesean, bai euskeran inolako Hizkuntza Eskolako kurtsorik gaudituta izan gabe, ezagupenak dituzten eta Eskolan sartzeko interesatuta daudeneztat zuzenduak izango direnak.

Froga hauen datak honako hauek izango dira:

Frantsesa: Asteazkena, irailaren 13an, 9:00 etan.

Ingelesa: Asteazkena, irailaren 13an, 10:30 ean.

Euskera: Asteazkena, irailaren 13an, 12:00 etan.

Azterketa hauek egin nahi dituztenak eskolara deitu beharko dute alde z aurretik beren izen-deitura, N.A.N, etab... emateko.

Tel. 943 20 06 48

kontuola...

KONTUOLA, Idolaz elkarte, ANTZUOLA. Kazetariak: Marijo Deogracias, Ainhoa Ugarteburu **Publizitatea:** Uxue Zabaleta **Erredakzio kontseilua:** Miren Anduaga, Gotzon Iparragirre, Patxi Kortabarria, Jone Larrañaga **Testuen zuzenketak:** Maripi Laskurain, Lierni Legorburu **Telefonoa eta faxa:** 943 76 65 08, Herri ikastetxea.

Antzuolako hamabostekaria, 63. zenbakia. 2000ko irailaren 8a.

Finalista Eguna domekan ospatuko du Arrola elkarteak Trekutzen

Mendi irteera egongo da goizeko 9:00etan Herriko Plazatik

Igandean, Finalista Eguna ospatuko du Arrolak. Aurten 26. aldia izango du jai honek. Bazkaria norberak eraman beharko du eta nahi duenak, mendi ibilaldia egiteko aukera izango du. Ordua goizeko 9:00ak, Herriko Plazan.

Finalista Eguna 1974ko irailaren 8an ospatu zen lehenengoz. Ordutik asko izan dira Arrolaren jai hau ospatu dutenak eta batzuek gainera, Koroson egiten zenekoa dute gogoan. Aurten aspaldiko urteetan bezala, Trekutzen ospatuko dute eta, horretarako, mendi buelta egingo dute 9:00etan Herriko plazan elkartu ondoren, eta 11:00etan salda eta txistorra hartzeko aukera izango dute gora igotzen direnena.

Orain dela gutxira arte bazkaria ere prestatu izan dute mendizale elkartekok. "Aurten, ordea taberna jarriko dugu eta bazkaria norberak ekarri beharko du, baina mahaiak jarriko ditugu". Horrela, bada, ez da beharrezkoa izango izena ematea bazkarira joateko. Bazkaria 14:00etan hasiko da eta bazkalostera jokoak egiteko eta trikitilariekin dantza egiteko aukera egongo dira.

ITURRIA KONPONDU DUTE

Trekutzeko iturria apurtuta egon da zutailean zehar, baina dagoeneko konpondu dute Arrolakok. Eskatera egin zuten Udaletxean lehenbailehen konpon zezan norbaitek. Beraz, lasai gora joan nahi duzuenok, ez da egongo egarria asetzeko arazorik. Gogoratu Arrolakok taberna ere jarriko dutela iaz bezala, Trekutzeko txabolaren ondoan.



Bazkaria norberak eraman beharko du.

ASPALDIKOAK

Hasieran esan bezala 1974 urteko irailaren 8an ospatu zen lehenengo aldiz Finalista Eguna, orain 26 urte hain justu. Garai hartan, Mendiko "Federacion Vasco-Navarra" zeritzanak dominak banatzen zituen mendizaleen artean. Urte horretan, aurreko urtean egindako mendiei zegozkien dominak jaso zituzten antzuolarrek.

Ohitura zen mendi gailurretako buztietan hara igo zirenen izenak eta men-

di elkartearen izena lagatzea horrela, urte amaieran, kontrola egiteko mendizaleen artean.

Egun horretan Pako Iriondo, gaur egun ere euskal mendi federakundeko lehendakaria dena zen "Vasco-Navarra" lehendakari eta bera izan zen Koroson dominak banatu zituena.

Azkenean, baina Arrolakok Korosotik Trekutzera joatea erabaki zuten jende gehiagorengana heltzeko, batez ere jende helduarekin pentsatuz. ■

■ ■ ■
Bazkalostea hiru trikitilari gaztek alaituko dute
eta umeentzako jolasak ere egongo dira
■ ■ ■

Antzuolarrak oporretan

Hondartza, antzinako eraikuntzak eta mendia aukeratu dituzte aurten



Pasa berri diren udako oporrak direla eta, antzuolarrak non izan diren jakin nahi izan dugu. Datorren urteko bidaia gertatzeko ideia bat baino gehiago hartzeko aukera!

1. Tunes aldean ibili dira Fernando, Edurne, Ugaitz eta Erlantz udan, astebe-
tez; hegoaldean zein iparraldean. Deser-
tua, hiria eta eraikin eta leku bitxi asko
ikusi dituzte. Argazkian, El Jemeko erro-
matar anfiteatroan agertzen dira; Afrikan
ikusi daitekeen handiena.

2. Jon, Unai, Jon, Lander, Iñaki, Aitor
eta Igor Andaluzian ibili dira. Hamabost
egunetan Malagako herri eta hirietan
egon dira. Gaez ere ateratzen zirela
eta, Marbellako Puerto Banus famatuan
ateratako argazki hau duzue lekukotzat.
Autoa eurena ote??

3. Mila, Iparra, Xiker, Mari Paz, Juan
Cruz, Erik eta Ainixe, LLeida eta Oskako
Piriniotan egon dira. Mendirik mendi ibil-
tzeaz gain, lautada eta herrixketan ere
egon dira, Besiberriko lakuetan. Han an-
tzuolar gehiagorekin ere egin zuten topo.
Badakigu Pirinio alde hori euskaldun jen-
dez betea izaten dela udan ere.

4. Miren eta Miguel Angel, beste
hainbat euskal herritarrekin, antolatuta-
ko bidaia batean hamabost egunez Tur-
kia aldera joan dira. Istanbul hiriburua
eta bertako mezkita izugarriak, mendial-
dea, egunsentia, eraikin erromatarrak,
grekoak eta bizanziarrak ikusi dituzte.
Bidaia Kurdistaneraino luzatu da, eta
konpania onean gainera.

5. Fernando, Ibon, Josu eta Aitorrek
ere Mediterranioko paisaiak aukeratu di-

1.



2.



3.

Igor eta Txomin



Margoak orokorrean

ANTZUOLA
609 157 131

BERGARA
609 150 164

EGAÑA

Era guztietako arotz lanak

Tarima eta parketa jartzea
Zoruen kutxilatuta eta barnizatuak

Kalegoi 21, ANTZUOLA Tf.: 943 76 64 23

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA



4.

tuzte aurten oporretara joateko. Baina hauek ez dira horren Hegoaldera joan eta Ibizako irlara joan dira. Barkuz joan zirenez autoa eraman zuten eta, ia irla osoa ikusi dute. San Antoni, Santa Eulalia eta Ibiza hirietan eta Formentera irlan ere egon ziren. Eguraldiak lagun, denetik egin dute. Argazkian Ibiza hirian daude.

6. Bada hala ere, ondo pasatzeko oso urrutira joaten ez denik ere. Jorge, Sofia, eta bere familia osoa Plentzian egon dira aurten. Hogeitabost egunetan Euskal Herriko kostaldean egon dira, lasai-lasai eguzkia hartu, pasiatu, eta baita arrantzan egin eta deskantsuan egin ere. Ez dago beti urrutira joan beharrik!

7. Mexikon izan ziren Nerea, Agurtzane, Alaitz, Marijo eta Ainhoa 23 egunez. Mexikoko zati handi bat bisitatu dute. Guanajuaton hasi eta estatuko hiri eta herrietatik, Pazifikoko hondartzetaraino iritsi ziren. Tartean, denetik egin eta ikusi dute: elizak, eraikin kolonialak... Bertako janaria ere probatu dute eta eraikin prekolonialak ere ikusi zituzten.

8. Kristina eta Iñaki bere familia osoarekin Extremadura aldean ibili dira lasai-lasai: Higuera herrian. Ondoko herrietara ere egin dituzte bisitak eta baita Meridara ere. Meridan txunditzeko moduko eraikin erromatarak ikusi dituzte. Baina dena ez da izan artea, eta etxeko giroan ere ondo moldatu dira, deskantsatzea ere komeni da eta!

5.




6.

7.



8.



Z Zabalo Iturgintza S.L.

Bidea eginez

Tailerra: Uzarraga bidea 10. Tf. 943 78 71 78

Erakusketa: Kalebarren 1. Tf. 943 78 71 79, Tf. eta F. 943 76 64 73

- Gas
- Berogailuak
- Haize egokitua
- Enpresen mantenimendua
- Lurrin instalazioak
- Bero-urrezte
- Bainugelak. Proiektuak momentuan egiten ditugu DIBaren bidez
- Birgaitze-espedienteak bideratzen ditugu

Tomas Gezalaza

- Apainketarako eta industrialako pinturak • Paper margotuak • Mokatet eta tapizatuak •

Kalegoi 21

Tf. eta faxa 943 76 64 07


Poltzikokoa 616 277 999

ANTZUOLA / BERGARA

Lanak Herriko plazan

Herriko plaza itxuraldatuta agertu zaigu oporretatik itzuli garenoi. Olarango jauregian zein ondoko bidean lanean aritu dira abuztuaren. Ondoko bidean herrian egiten ari diren etxe berriak direla eta egin dituzte lanak. Izan ere, bertan errekatxo bat aurkitu dute eta desbideraketa egiteko zabaldu dute bidea. Errekatxoaren erreak nagusira desbideratu dute.

Olarango jauregian, berri-berreskurapen eta berrikuntza lanak egiten ari dira, kanpotik zein barrutik. Duela hilabete batzuk hasi zituzten lanak eta oraindik behintzat, ez dira amaitu. Kanpoko berreskurapen lana Arrasateko Lanbide eskolako enpresaren dago.



Lanbide Eskolakoak ari dira lanean.



ETAren azken atentatuaren aurka

Bilkura ixila egin zen Herriko plazan abuztuaren 30ean. EAJK, EAK eta Elkarrik deitu zuten bilkura, bezperan ETAk egindako atentatua salatzeke. Gogoratuko duzuen bezala, Zumarragan PPko zinegotzia, Manuel Indiano, tiroz hil zuten. Jende talde handia elkartu zen Herriko plazan, ordu laurdenez.

EPERRA 25. URTEURRENA

Eperra elkarteak 25. urteurrena ospatuko du irailaren 17an, domekan. Egunari hasiera emateko 11:30ean hildako bazkideen omenez meza izango dute. Ondoren 14:00etan bazkide guztientzat Eperra elkartearen bazkaria egongo da. Egun hau gogoratzeko batzarkideek bertso bat moldatu dute:

“Eperra sortu zanetik honutz 25 urte badira batera geizki etzaigu jua jartzen bagera begira hori dala ta elkarte hontan jarria dan bazkaria lagun-bazkide egun horretan etortzea komeni da”.

Hala ere egun handiaren bezperan, irailaren 16an, zapatuan, ehiza elkarteak, galeper tiraketa antolatu du Colombare erara. Lekuberriko zelaian izango da eta bazkide zein herritar guztiak izango dute parte hartzeko aukera. Ekitaldia arratsaldeko 16:00etan hasiko da eta entrenamendua, goizeko 11:00ak eta 13:00ak bitartean izango da.

GUTUNA

ELAY TALDEKO ZUZENDARITZAREN AZALPENA

ELAY Taldeko Zuzendaritzak prentsan agertutako informazioen aurrean honako hau adierazi nahi du:

Ez dela inolako despidorik egon Nobodni Castroren kasuan. Taldeko langile bateri lan-contratua amaitu eta ez zaio kontratu berririk egin.

Antzuolan, 2000ko uztailaren 28an.

Tomas Gezalaga

Zoruen kutxilatuta eta barnizaketa

Kalegoi 21
Tf. eta faxa 943 76 64 07
Poltsikokoa 616 277 999
ANTZUOLA / BERGARA

GOROSTI
Taberna

☎ 943 76 62 96
Zurrategi plaza ANTZUOLA

ANTZUOLA

Apainketak eta
isolamenduak
Pladurrezko dibisioak

Kalegoi 21 ANTZUOLA
Tf.: 943 72 30 05
Biltegia: 943 78 70 40

GAILUR
taberna eta
gozotegia



Buzinzuri 13 ANTZUOLA
Tf. 943 78 70 32

Iraileko eskaintzak

EROSKI BIDAIAK EROSKI BIDAIAK EROSKI BIDAIAK EROSKI BIDAIAK EROSKI BIDAIAK EROSKI BIDAIAK EROSKI BIDAIAK EROSKI BIDAIAK EROSKI BIDAIAK EROSKI BIDAIAK



VALDELATEJA

Burgos
Astebukaera balnearioan
3 egun- 2 gau
17.325 pta.

PORT AVENTURA

8 egun- 7 gau
Hotela***
Pentsio osoa 30.255 pta. (Port Aventurarako pertsona batendako 2 egunetarako sarrera barne)
Hotela***
Pentsio erdia 26.195 pta.

BALI

8 egun
Gosaria barne.
135.100 pta.

BENIDORM

8 egun
Hotela**
Pentsio osoa
33.425 pta.

NAFARROA

3 egun, astebukaera
Pentsio erdia
8.975 pta.

MALDIVAS

10 egun
Pentsio erdia
175.525 pta.

TENERIFE

8 egun
Pentsio osoa
59.900 pta.

CUBA

8 egun
Gasteiztik irteera
86.500 pta.tik



VIAJES EROSKI

BIDAIAK

IRIZAR I
943 76 26 76
Faxa 943 76 71 13

► Precio Onak baino gehiago



Bergarak garaipen batekin eman zion hasiera aurtengo ligari

Domekan Zornotzan jokatuko dute mahoneroek

Bergarako hirugarren mailako futbol taldeak hasiera ezin hobea eman dio aurtengo liga txapelketari, domekan Agorrosinen jokatuako partiduan 2-1eko emaitzarekin nagusitu baitzitzaion Lemoa taldeari. Bergarak merezimendu osoz eskuratu zituen hiru puntuak.

Lemoa kategoriako faborito nagusienetakoa dugu, baina Athleticeko jokalaria izandako Liceranzuren mutilak esku hutsik bueltatu ziren domekan. Juanina Garai Bergarako entrenatzaile berriak, berriz, garaipen batekin debutatu zuen hirugarren mailan.

Hasieratik etxekoek erasora egin zuten eta mahoneroek izan zituzten gol aukerarik onenak. Hamargarren minutuan Paco Santiago lehenbiziko gola lortzekotan izan zen, baina bere jaurtiketa kornerrean bidali zuen Alvarok, Lemoako atezainak. Bigarren erregionaleko taldearekin fitxa duen Unai Rollan gazteak egin zuen partiduko lehen gola 35. minutuan, Alvaro atezainaren erretxaze eskas bat ja-



Argazkian, domekan, Lemoaren aurka zelairatutako hasierako hamaikakoa.

so ondoren. Lehen zatia amaitzeko 5 minutu falta zirela, Lemoak berdinketa lortu zuen, Ruben Ruizek maisutasunez jaurtitako zuzeneko falta bati esker.

LEMOAK PENALTIA HUTS EGIN

Bigarren zatia hasi bezain laister, Josetxok bergararren bigarren gola egin zuen, Jokin Mendiartzek eskuin角度 egindako erdiraketa buruz sareetara bidaliz. Hortik aurrera, Lemoak berdinketa lortzeko ahaleginak egin zituen baina bizkaita-

rrek ez zuten arrisku gehiegi sortu. Hala ere, 70. minutuan aukera paregabea galdu zuten, Ruizek penalti jaurtiketa bat huts egin baitzuen. Azkenean, esan bezala, hiru puntuak etxean geratu ziren, zaleen pozera. Domekan 500 bat ikusle bildu ziren Agorrosinen.

Juanina Garai entrenatzailea oso pozik zegoen lortutako garaipenarekin: "erritmo biziko partidua izan da eta 20. minuturako ez nuen uste erritmo horri eutsiko genionik. Hala ere, jokalariek duten guztia

eman dute eta oso garaipen inportantea lortu dugu. Horrela borrokatzen badugu beti, ondo ibili gaitzke aurtentzen. Espero dut zaleek joan zen denboraldian baino gutxiago sufritzea. Ilusioa eta gogoia ez zaigu falta eta taldean oso giro ona dago. Momentuz hasiera ona eman diogu denboraldiari eta hori oso garrantzitsua da datozen partiduei begira. Jokalarien lana goraiatzeko da".

Garairen ustetan, faboritoak betikoak izango dira: "Ez ditut ligan ari diren tal-

CAMACHO

Drogeria
Usaindegia

Bidekurutzeta 24 BERGARA
☎ 943 76 13 35

MUJIKA UNIFE KOOPERATIBAKO KIDE
FERRETERIA

BERGARAKO ENPRESA ETA HERRITARREN ZERBITZURA

Bidekurutzeta 8 ☎ 943 76 28 67 BERGARA

GURIA
Taberna

Bidekurutzeta 5
☎ 943 76 20 34

deak gehiegi ezagutzen, egia esan. Dena den, Realak, Zallak, Arenasek edo Lemoak talde indartsuak dituzte eta denboraldia zaila izango da. Hala ere, Lemoaren kontra jokatu ondoren, baikor naiz eta uste dut taldeak kalitatea baduela denboraldi amaieran larri ez ibiltzeko. Uste dut aurreko denboraldian baino talde hobea dugula. Ikusi egin behar. Hirugarren maila ez da kategoria erraza eta ziur partidu guztiak zailak izango direla, presioa handia baita. Domekan uste dut merezita irabazi genuela. Atzean serio aritu ginen eta baloia jokatzekoan ere ondo ibili ginen. Kontuan izan behar da, gainera, Lemoa esperientzia handiko taldea dela”.

Taldeari dagokionez, Aritz Arabiourrutia arrasatearrak, Koldo Erostarbe elgetarrak eta Unai Urribesalgo, Paco Santiago eta Unai Rollan bergararrek lehen taldearekin debutatu zuten domekan, guztiek partidu txukuna jokatu zutelarik. Bestalde, Mikel Osoro, Oskar Maiztegi, Luis Blanco eta Igor Alberdi jokalariek lesionaturik jarraitzen dute.



Juanina Garai entrenatzaileak garaipen batekin debutatu zuen 3. mailan.

Garairen hitzetan, “jokalari guztiak errekuperatzea oso inportantea da. Orain atzealdean nahiko arazo ditugu baina plantila osoa ondo entrenatzen ari da eta kompetentzia handia izango da hamaikakoan sartzeko. Ea domekan, Zornotzan, Amo-

rebietauren aurka puntuatzerik daukagun”. Hilaren 16an Bermeo hartuko du etxean Bergarak.

BI PARTIDU ASTEBUKAERAN

Astebukaera honetan bi futbol partidu jokatuko dira. Alde batetik, ohorezko jubenilak Aierru taldearen aurka jokatuko du bihar, zapatua, 17:30ean Agorrosin. Bestalde, bigarren mailako jubenil taldea lehen mailakoekin arituko da azkenean, talde batek azken orduan parte hartzeari uko egin ondoren. Bergarako jubenilek Mundaroren bisita jasoko dute bihar, 16:00etan Ipintzako zelaian.

Otsein Saria

Lemoaren aurkako partiduan hauek nabarmendu ditugu:
Ander Berraondo . . . 3 puntu
Arkaitz Arana 2 puntu
Paco Santiago Puntu bat
Etxeko partiduak bakarrik hartzen dira kontuan.

Bergara futbol taldeko plantila

ATEZAINAK
Markel Egaña 23 urte
Arkaitz Ganzarain 20 urte

DEFENTSAK
Jon Ander Gallastegi 24 urte
Unai Urribesalgo "Txara" 20 urte
Aritz Arabiourrutia 23 urte
Ander Berraondo 23 urte
Asier Rodriguez 22 urte
Mikel Osoro 25 urte
Etor Laskurain 25 urte
Luis Blanco 25 urte
Xabier Lete 19 urte
Oier Loiola 20 urte

ERDILARIAK
Arkaitz Arana 25 urte
Jose txo Lizarralde 24 urte
Jokin Mendiaratz 23 urte
Iñigo Iriarte 25 urte
Oskar Maiztegi 25 urte
Unai Rollan 20 urte
Mikel Altuna 19 urte


AURRELARIAK
Igor Larrañaga 23 urte
Paco Santiago 19 urte
Koldo Erostarbe 19 urte
Gorka San Vicente 21 urte
Igor Errasti 25 urte
Igor Alberdi 23 urte
Joseba Duran 24 urte

Entrenatzailea: Juanina Garai
Bigarren entrenatzailea: Lauri Askargorta
Delegatua: Luis Herzog
Masajista: Jose Luis Martinez
Prestatzaile fisikoa: Igor Gutierrez



BOKATEGIA

Simon Arrieta plaza 2A behea ezkerre.
 Tf. 943 76 71 19



OGIZUN

koop. elk.
okindegia

San Pedro 21 Zubillaga z/g
 BERGARA OÑATI
 943 76 20 49 943 78 24 13

**PINTXO eta BOKADILOAK
 SEKULAKO MARTXA!!**

EUXEBIO II

Irala z/g ☎ 943 76 07 92

IKUSBI

**ALKANDORAK,
 JERTSEAK, BAKEROAK
 ETA OSAGARRIAK**

Irala 5 ☎ 943 76 53 09

Agirrebeña

JATE TXEA



Ibarra kalea 2 • Tf. 943 76 20 38

Usoa Pub



☎ 943 76 38 57
 Irala 1

Futbito txapelketa irailaren 23an jarriko da martxan

Labegarrietako areto futboleko XV. edizioa irailaren 23an hasiko da martxan. Izena emateko epea irailaren 12ra arte izango da zabalik. Egun horretan bertan ordezkariei batzarra egingo da Kultura Etxean, 18:30ean. Talde bakoitzak 23.000 pezeta ordaindu beharko du Euskadiko Kutxan irekitako kontu korrontean eta kontuan sartutako diruaren ordainagiriarekin batera, taldearen izena eta jokalarien zerrenda eta NAN zenbakia entregatu beharko dira Kiroldegian. Azken edizioan 40 talde izan ziren lehian eta Errotagain eta Bil-



Errotagain taldea, ligako azken txapelduna.

durbarek Opel Lam taldeak izan genituen liga eta kopako txapeldunak.

Aurtengo nobedadeen artean esan behar da Labe-

garrietako barruko kantxaren zorua hobetzeko lanak egin direla udan. Aipatutako lanek 3 milioi inguruko aurrekontua izan dute.

Xake astea martitzenetik

Martitzenean, hilak 12, Xake asteari hasiera emango zaio. Arratsaldeko 7etatik aurrera xakeko aldi bereko jokaldiak izango dira San Martin plazan. Asteazkenean, 18:00etan, Bergarako eskolarteko txapelketa jokatu da eta eguenean, ordu berean, xakeari buruzko pintura, marrazki, komiki eta ipuinen eskolarteko txapelketa izango da. Egua-kitzean, berriz, blitz lehiaketa jokatu da 19:00etatik aurrera Xake taldearen egoitzan, Zabalotegian.

Krosa San Martin egunean

Datorren zapatuan, hilak 16, San Martinetako kross herrikoia jokatu da 16:30etik aurrera, Atletiko Zaleak taldeak antolatuta. 14 urtera bitarteko gaztetxoek 1.700 metroko ibilbidea bete beharko dute, eta 15-17 urte bitartekoek 4.560 metrokoa. Nagusiek 9.120 metro korritu beharko dituzte. Izen-ematea egunean bertan Plazan.



Argazkian, joan zen urteko krosetako irudi bat.

Kirol Zerbitzuak zenbait ohar

Hemendik urte bukaera bitartean Kirol Zerbitzuko karneta egiterakoan, %40ko deskontua egingo da. Bestalde, astelehenetik aurrera kanpoko igerilekuak 20:00etan itxiko dira. Era berean, zabalik dago aerobik eta mantenimendu gimnasia parte hartzeko izen-ematea. Argibideak: 943 77 91 67.

Arloteak txapeldun

Arloteak taldeak irabazi zuen uztailaren 21ean jokaturako Ipintzako nagusien mailako futbol txapelketa. Agorrosinen jokaturako finalean Arloteak taldea 2-0eko emaitzarekin nagusitu zitzaion Down taldeari. BERRIGARAK txapelketako golegile onenari emandako saria Bildurbarek taldeko Juan Luis Etxanizek eraman zuen. Gol gutxien jaso zuen atezaina Ander Garitano izan zen eta Duni Olabariak ere trofeoa eskuratu zuen txapelketako jokalaririk beteranoena izateagatik. Bestalde, beteranoen txapelketan, A Ze Flaxak 2-1 irabazi zion La Guipuzcoana taldeari.



Argazkian, Arloteak taldekoak eskuratutako trofeorekin.

FRANTSES IRAKASKUNTZA



Mizpildi 3, 1. ezkerre • BERGARA

2000-2001 ikasturtea

FRANTSESA - FRANTSES KOMERTZIALA
AZTERKETETARAKO PRESTAKETA
UMEENDAKO FRANTSESA

Ikastaroaren hasiera:

urriaren 2a

Izena ematea: irailaren 29ra arte
Informazio gehiago: 10:00-12:00 eta 17:00-19:00

943.76.30.55



SHOTOKAN KARATE-DO



- Gure lagunei eta gurekin karatea ikasi nahi duten guztiei gogoratzen diegu, denboraldi honetako klaseak hil honen 6an, eguaztena, hasi zirela, ondorengo orduetan:

Umeak: 18:00etatik 19:00etara

Nagusiak: 19:00etatik 20:30era.

- Ikastaroak **Joxean Iñarra** irakasleak emango ditu, titulu hauen jabeak:

Gorputz hezkuntzako lizentziatua (INEF)

Karateko gerriko beltza 2. Dan-a

Ninjitsu gerriko beltza 2. dan-a

Karate entrenatzailea

Ninjitsu entrenatzailea

Karate-epailea

eta, gainera, Karateari buruzko material

didaktikoa gertatzeko Deba Garaiko

Mankomunitatearen beka lortua duena.

Gurekin harremanetan jartzeko deitu

943 76 07 21 telefonora

21.00 eta 22.30 artean

edo zatoz Miguel Altuna berriko gimnasiara entrenamendu-ordutan.



Shotokan txapeldunen eskola!

1. ETXEBIZITZAK

SALDU

Barrenkalea.
943 76 44 34.

Aranerrea. Jantzia.
75 m². 629 655 195.

Zubieta. 646 516 192.

Pisua garajearekin, Aranerrekan. 943 76 07 77.

Iraburun (Bolu), 87 m².
943 76 08 47.

ERRENTAN EMATEKO

Apartamentu txikia Matxiategin. 943 76 12 05 (20:00etatik aurrera).

Fraiskozuri.
943 76 15 40.

Etzeko logelak alokatzen ditut.
943 76 43 95.

Gasteiz. Pisu txikia alokairuan.
Bi laguntzadako.
Unibertsitate ondoan.
619 522 971 (gavez).

ERRENTAN HARTZEKO

Pisua hartuko genuke alokairuan Bergaran.
696 782 176 (Loli) edo
630 712 318 (Marta).

Iragarki sailkatuak

Iragarkia DOAN jartzeko, zatoz Berrigarara edo deitu telefonoz, 943 76 03 97, martitzen eguerdia baino lehen. Berrigarak ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Zure iragarkia ia 16.000 lagunek irakurri dezakete!

1. ETXEBIZITZAK
Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Etxe konpartituak
Bestelakoak

2. GARAJEAK
Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

3. LOKALAK
Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

4. LANA
Eskaintzak
Eskaerak
Bestelakoak

5. IRAKASKUNTZA
Eskaintzak
Eskaerak
Bestelakoak

6. IBILGAILUAK
Saldu
Erosi
Bestelakoak

7. ANIMALIAK
Saldu
Erosi
Bestelakoak

8. DENETARIK
Saldu
Erosi
Eman
Hartu
Trukatu
Galdu
Aurkitu
Bestelakoak

9. HARREMANAK
Agurrak
Kontaktuak
Deiak
Bestelakoak

Etxea alokatuko nuke. Jantzia. 90.000 pta. arte ordaintzeko gertu nago. Presazkoa da. Deitu 649 790 901 telefonora.

Etxea alokatuko genuke Bergaran edo Antzuolan. 943 76 39 16.

Etxea alokatu edo erosiko nuke Bergaran edo inguruan. 94 446 43 84 / 659 506 679.

Pisua alokairuan hartuko genuke San Antonio-Labegarieta inguruan. 943 76 18 73.

Pisua edo logela hartuko nuke alokairuan Bergaran edo inguruan. Deitu 646 975 367 telefonora.

ETXE KONPARTITUAK

Lagun bat nahi dut Bergarako nire pisua konpartitzeko. 636 004 385 (Joseba).

Mutila naiz eta pisua konpartituko nuke. 606 758 366.

Donostiako erdialdean pisu handia konpartitu-

ko nuke urte osoan. 670 087 427 (Ainhoa).

2. GARAJEAK

SALDU

Garajea salgai Burdiñaten. 943 76 43 75.

Garajea salgai Ibargarain. 943 76 00 93.

Matxiategi. 943 76 23 12.

ERRENTAN EMATEKO

Santa Marina.

943 76 37 69.

Garajea alokairuan Zubiaurren. 943 76 23 53.

ERRENTAN HARTZEKO

Garajea edo lokal komertziala hartuko nuke alokairuan, 40-60 m²koa. 646 673 204.

3. LOKALAK

EROSI

Lokal komertziala erosi nahi nuke San

Lorentzon. 300 m².
607 82 53 06.

ERRENTAN EMATEKO

Lokala alokairuan herri erdian. 120 m².
617 025 376.

Koldo Eleizalden, behe, 50 m². 943 76 37 69.

4. LANA

ESKAITZAK

Tabernan, tailerrean edo dendan lan egingo lukeen 35 urteko mutila naiz. Esperientzia. Informatika ezagutzak. 610 972 250 (Antxon).

Geriatrian espezializatutako klinika laguntzaleak zaharrak edo gaisoak zainduko lituzke. 609 770 133.

Neskak, goizez umeak zainduko lituzke. 636 438 832.

Neskak garbiketa lanak egingo lituzke jatetxe batean. 639 936 841.

Umeak zainduko nituzke uztailetik irailera bitartean. 943 76 39 91.

Neska umeekin lan egiteko gertu. Esperien-

ILEAPINTZAILEA
behar da

943 76 56 69

Jatetxe batean
GARBITZAILEA
behar da

943 76 59 19

 **DEBA GARAIA**
INMUEBLE ETA FINANTZA AGENTZIA

Bergara / Arrasate / Elgoibar
Telefono Aranzadi 2 behe
943 76 21 80 / 943 76 06 37

Etxebizitza berriak Antzuola erdian

- Aparteko lekuan eta ingururik ederrenera begira
- Primerako materialekin jasoak
- 18.000.000 pezetatik aurrera

Jatetxe batean
ZERBITZARIAK
eta **SUKALDE**
LAGUNTZAILEAK
behar dira

943 76 22 68

Altsasu elkarte
GARBITZAILEA
behar dugu

943 76 46 64
943 76 05 10
(20:00-22:00)

ZUBIAURRE
aroztegia

- Aulki eta mahaien erakusketa eta salmenta.
- Sarrerarako eta barrurako atekak.
- Neurritara egindako horma-armairuak.
- Tarima eta parketak.
- Zurezko leihoak.
- Era guztiak arotz-lanak.

Zubiaurre 2, Bergara.
Tf. 943 76 15 14 / 943 76 35 73

KONDE



Burdinate 1
943 76 02 57

P
A
N
A
D
E
R
O
K
U
A

tzia. 943 76 53 71.

Neska lanerako gertu udan. 943 76 00 24.

ESKAERAK

Autoa duen pertsona behar da goizez umeak zaintzeko. 943 76 63 46.

Emakume euskalduna behar da goizez emakume edadetu zaintzeko. Deitu 943 76 36 52 telefonora.

Emakumea behar da Antzuolan etxeko lanak egiteko. 943 76 60 80.

Etxeko lanak egiteko eta haurrak ikastolara eramateko neska behar da. 943 76 31 11.

5. IRAKASKUNTZA**ESKAINTZAK**

Alemaniera klaseak ematen ditut. 943 76 91 33 / 93 74 (Ildoia).

LH eta DBHko 1. ziklorako eskola partikularrak ematen ditut. Deitu 943 76 39 61 telefonora.

Eskola partikularrak ematen ditut. OHO eta DBH. 943 76 39 94.

ESKAERAK

Conta Plus klaseak hartuko nituzke. 943 76 27 51.

Ingeniaritzako ikasleak kimikako eskolak hartuko lituzke. 943 76 22 95.

6. IBILGAILUAK**SALDU**

Opel Corsa 1.3. 200.000 pta. 943 78 71 31.

Seat Ibiza 1.2i. 1992. 60.000 km. 400.000 pta. 943 76 50 86.

Kawasaki GPZ 500 motorra. Egoera ona. 943 76 71 21.

Opel Kadett (SS-AH). 943 76 02 88.

Aprilia RS 50 motoa. 943 76 48 47.

Trial motoa. 250 motorra. 125.000 km. 943 79 78 36.

Seat Panda oso merke. 656 743 272.

7. ANIMALIAK**SALDU**

Sei hileko hispaniel

arra, 11 hileko seter ingeles emea eta urte eta erdiko pointer emea. 943 76 37 70.

Katu persak, 2 hilabete-koak. Prezio ona. 943 76 33 58 (Natalia).

Ahuntzak. 943 76 48 07 (Gorka).

Setter ingeles txakurkumeak. 943 20 31 01.

BESTELAKOAK

Txakurkumeak opari. 943 76 21 55.

Bi urteko katu siamesa opari, ezin dudalako zaindu. 943 76 39 95.

8. DENETARIK**SALDU**

Tronpeta berria. 943 78 70 52.

Genio 2000. Prezio ona. 943 78 70 52.

Ileapaindegiko altzariak eta materiala. Merke. 943 76 25 38.

Lasterketa bizikleta. Prezio ona. 943 76 23 68.

Marrazteko mahaia eta aukia. 943 76 41 96.

Bizikleta estatikoa. Berria. 943 76 25 01.

Play Station: txipa, 2 aginte eta jokoak. Deitu 666 466 969 telefonora.

Inesca Viena karrodenda. 943 76 43 80.

Wip-it piragua. Osagarriekin. 150.000 pta. Deitu 943 79 78 36 telefonora.

Bizikletan ibiltzeko rodilloa. 943 76 18 78.

San Marco bizikletako eserlekua; larrua, jela. 5.000 pta. 943 76 07 50.

Egongelako altzaria. la berria. 2,8 m. luze. Deitu 943 76 41 31 telefonora.


Batzeko moduko karabana. 943 76 58 05 / 41 55.

EROSI

Bigarren eskuko ordenagailua erosiko nuke. 943 76 47 67.

BESTELAKOAK

Txakurra edukitzeko txabola behar dut Deitu 607 448 531 telefonora.



Langai

Euskal Lan Zerbitzua

SKI SAILERAKO DENDARIA
Donostia. 37696/1

SEINALIZAZIO LANETARAKO LANGILEA
Debabarrena. 37433/9

INFORMATIKA IRAKASLEA
Arratia. 37107/4

FRESATZAILEA
Gasteiz. 36964/2

SUKALDARIA
Amurrio. 35279/3

KOMERTZIALA
Bilbo. 35525/1

IGELTSEROAK 2
Bilbo. 35759/3

SEGURTASUN ZAINDARIAK
Donostia. 35411/4

ADMINISTRARI LAGUNTAILEA
Bilbo. 36257/4

APAREJADOREA
Bilbo. 36445/2

ESTETIZISTA
Goierri. 36112/3

ENPRESA

INTERNET IRAKASLEA
Debabarrena. 36189/1

INGENIARIA
Bilbo. 36225/3

INFORMATIKARIA
Bilbo. 36286/1

OPTIKARIA
Ibai ezkerrekoa. 35852/3

KOMERTZIALA
Bilbo. 32763/1

KOMERTZIAL IRAKASLEAK 3
Ondarroa. 36159/2
Ondarroa. 36160/2
Ondarroa. 36161/2

IGELTSEROA
Bilbo. 35408/1

Lan eskaintzaren bat interesatzen bazaizu, erreferentzia hartu eta eskatu informazioa.

Langai Udaletxean: astelehen, eguazten eta eguakitzetan 9:00etatik 13:00era.
Telefona: 943 77 91 65, Maria Jesus Unamuno.

Debagoieneko komunikazio enpresa batek TELEBISTAKO ERREDAKTORE BURUA behar du

Erredakzio taldea zuzenduz, telebistako albiste zerbitzuen ardura izango du.

Eskatzen da:

- Kazetari izatea, telebistan esperientziaduna.
- Lantaldeak zuzentzeko gaitasuna.
- Euskarari ordenagailuen erabilerari maila ona.
- Gidatzeko baimena eta autoa.

Eskaintzen da:

- Aldi baterako kontratua mugagabe bihurtzeko aukerarekin.
- Lanean berehala hastea.
- Etorkizun handiko proiektuan partaidea izatea.

Interesatuak kurrikuluma eta argazkia bidali, irailaren 18a baino lehen, ondoko helbideetako batera:

estenibar@euskalnet.net edo 95 Posta Kutxatila • 20500 ARRASATE

Mutila behar da ITURKIN OFIZIOA ikasi eta lan egiteko

943 72 63 38

JANTZIEN KOMERTZIOA traspasatzen da ezin delako atenditu

619 517 655

OSTALARITZAN lan egiteko pertsonak behar dira aste barrurako edo asteburuetarako

943 76 35 81

ARANE KRISTALDEGIA

Erakustoki berria

Artekalea 18, behea.
Tel. 943 76 74 09
670 483 903

XVI. Dantza Sueltoke txapelketa Moises Azpiazen oroimenez San Martin jaietan

Moises Azpiazu zenaren oroimenezko dantza txapelketa jokatu da, hilaren 15ean, Udal Pilotalekuan. XVI. aldia da dantza sueltoko txapelketa hau antolatzen dena, eta dagoeneko ohitura bilakatu da San Martin jaietan. Bihar, zapatua, amaituko da izena emateko epea. Orotara hamabost bikote arituko dira lehian.

Bikote Nagusiendako Dantza Sueltoke XVI. txapelketa jokatu da hilaren 15ean, eguakitza, Udal Pilotalekuan. Moises Azpiazu Dantza taldeak eta Udalak elkarlanean, Moises Azpiazu zenaren oroimenez antolatu ohi dute txapelketa hau San Martin jaiekin batera. Jadanik San Martin jaiegi egitarauan ohiko ekialdi bilakatu da bikote nagusiendako dantza sueltoko txapelketa.

Txapelketa 19:30ean hasiko da, eta 15 urtetik gorako bikote guztiek eman dezakete izena. Horretarako, Kultura Etxera deitu behar da, 943 77 91 58



Gehienez, 15 bikote har dezakete parte txapelketan. Ahal den neurrian Bergararrak izatea bultzatu du Moises Azpiazu taldeak. ARTXIBOA

edota 943 77 91 59 tefonoetara. Epea, bihar, zapatua, amaituko da.

Gutxienez Bergarako dantzari bat duten bikoteek, NANaren kopia bat baino ez dute eraman beharko izena emateko. Partehartzaile kopurua hamabost bikotera mugatu da. Herrian ez badira hamabost talde sortzen, Euskal Dantzarien Biltzarreko egoitzan zozketa egingo da falta direnak aukeratzeko.

Partehartzaile guztiek fandango eta arin-arin bana dantzatu beharko dute trikitiaren laguntzaz. Sariei dagokienez, bost egongo dira, eta saririk jasotzen ez duten bikoteendako hamar mila pezetako dieta egongo da.

Aipatzekoa da, bestalde, Bergarako bikote onenak, garaikur berezia ere jasoko duela Moises Azpiazen sendiaren eskutik.

"Hobetzen", San Joxepe elkarteko aldizkaria

Aldizkari informatiboa kaleratu berri du San Joxepeko batzordeak, uztailearen amaiera aldera. Hamabi orrialdetako hiruhilabetekari hau San Joxepeko bazkideei zuzenduta dago, eta bere helburua egoitzak antolatzen dituen ekitaldien berri ematea da: alde bate-

tik, bazkideak informatuta izateko, eta beste alde batetik, bazkide horien partehartzea bultzatzeko.

Hobetzen, hori da aldizkariaren izena, eta balizko beste izen batzuen artean aukeratu zuten San Joxepeko batzordeko kideek. Izan ere, San Joxepeko kideek

islatu nahi duten izpiritua adierazten du: hoberranzko bidea.

San Joxepe bertako lan talde bat arduratu da aldizkariak; edukiaz zein maketazioaz. Hurrengo alean, urrian, elkarteak urrirako antolatu duen kultur egitarauaren berri emango du.



LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.

Zerkaosteta 1 eta 2 ARRASATE Tf. 943 79 27 27 / 943 79 13 55



☎ 943 76 20 61

Europa eta inmigrazioa ikusgai Markeliñe taldearen eskutik

“Aló Europa”, Markeliñe taldearen azken lana ikusteko aukera izango da San Martin jaien egitarauaren barruan. Kolore, musika eta irudimenez jositako ikuskizuna da, eta hirira emigratu nahi duen gazte afrikar baten nondik nora-koak agertuko dizkigu gogoeta ironikoaren artean.

Markeliñe antzerki taldeak, “Aló Europa” kale ikuskizuna eskainiko du datorren eguenean, hilak 14, gaueko 22:30ean San Martin plazan.

Gaur egungo gertaera batean oinarrituz, hau da, Europa eta inmigrazioa oinarri hartuta, hausnarketa ironiko bat ekarriko digu Markeliñek. “Aló Europa”, kale ikuskizuna da, eta gauez eskaini beharrekoa, argiak eta piroteknia baitira obraren ardatz nagusietako bat. Kolore, musika eta irudimenez jositako ikuskizuna da, eta istorioaren erdigu-



Argiak eta piroteknia dira obraren ardatz nagusietakoak.

MARKELIÑE

nea eskenatoki erdian kokatzen den zubia; hirira emigratu nahi duen etorkinak gurutzatu beharko duen zubia. Bere ibilbidea odisea bilakatuko da.

ELEMENTUAK AMANKOMUNEAN

Markeliñe 1985. urtean sortu zen. Hamar antzezlan sortu ditu; “Aló Europa” da azkena, eta guztietan badira errepikatzen diren hainbat elementu, taldearen adierazgarri direnak: aktoreen keinuak, testu eza, magia, eta batez ere, aktore eta eskenografiaren sorpresa.

Udako jazz eta zine emanaldiek jende asko bildu dute Espolaira eta San Martin plazara

Udaleko Kultura Batzordeak uztaile eta abuzturako antolatutako jazz eta zine emanaldiek jende ugari bildu dute. Hori horrela, balorazio oso positiboa egin du Iñigo Alberdik, Kultura zinegotziak. Bere esanetan, uztaile zein abuztuko emanaldietara “jende ugari

bildu da” eta datorren urtean “udako ekitaldiak antolatzen jarraitzeko asmoa” azaldu du. Uztailean jazza Espoloiaren eskaini zen eguenero, eta abuztuko film emanaldiak San Martin plazan, nahiz eta lehenengo emanaldia suspentitu egin zen euriagatik.

salduenak abuztua

LIBURUAK

EUSKARAZ

1. ABERTZALEAK ETA EZKERTIARRAK
Juleñ Zabalo. Elkarlanean
2. NAFARROA: IRAGANA ETA GEROA
Iñaki Petxarroman. Txalaparta
3. VENEZUELA, IRAULTZA ISILAREN...
Pako Aristi. Txalaparta
4. ONAN
Aitor Arana. Txalaparta
5. GAIZKILEEN FAKTORIA
A. Barandiaran. Egunkaria

ERDARAZ

1. LA FIESTA DEL CHIVO
Mario Vargas Llosa. Alfaguara
2. LA CARTA ESFERICA
Arturo Perez-Reverte. Alfaguara
3. OMERTA
Mario Puzo. Ediciones B
4. GRAN HERMANO: EL PRECIO ...
Quintanas. Ardi Beltza
5. VERONICA DECIDE MORIR
Paulo Coelho. Planeta
Iturria: Etxepare-Bilintx, Peñalba, Zangitu


DISKOAK

1. UNPLUGGED
Mana
2. CRUSH
Bon Jovi
3. DISCO ESTRELLA 3
Batzuk
4. IN BLUE
The Corrs
5. MAYO CONGO
Carlos Nuñez
6. PARAISOS DESIERTOS
I. Serrano
7. SUEÑO SU BOCA
Raul

Iturria: Etxepare-Bilintx, Zaiazko

**OILAGORRA
TABERNA**

Barrenkalea 21 BERGARA



Manufacturas LARRAÑAGA

Lan-babeserako artikuluak, lan-prebentzio eta seinaleztapena, lanerako jantzigintza

Leizeaga 1. Tf. eta faxa 943 76 59 53.
Posta kutxa 140. 20570 BERGARA (Gipuzkoa)

denborapasa

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
2									
3									
4									
5									
6									
7									
8									
9									
10									

LUMA

Ezker eskuma

1. Inon ematen diren egunak. 2. Zornea. Herri hizkeran, eta. 3. Aldrebeskeria. Bat. 4. Errepikatuz, gorotza. Dirua xahutu. 5. Oinarrizko edaria. Iodoa. Bokala errepikatua. Bokala. 6. Zamaria. Norat atzikia. 7. Gabezia. Oso garbia. 8. Žiria sartu. Boroa. 9. Potasioa. Modu atzikia. Neona. Atzikia. 10. Ebaslea. Zilbor.

Goitik behera

1. Emakume. 2. Eragotzi. Hidrogenoa. 3. Bururatu. Anarkismoari dagokiona. 4. Nekadura. Bostehun. Hiru. 5. Etsaiak. Nitrogenoa. 6. Italiako dirua. Fruitu-mota. 7. Iparraldean, sega. Sarrera. 8. Bokala. Agur egin. Kontsonantea. 9. Kanpo. Bokala. Lehenengoa eta azkenekoa. Musika nota. 10. Portu. Danbor-mota.

Soluzioa

10. Kal. Atebal. 9. At. I. Az. Si. 7. Dailu. Ate. 8. I. Agurtu. Z. 5. Aterioak. N. 6. Lira. Arana. 3. Otu. Anarko. 4. Neke. D. III. 1. Emakumezko. 2. Galerazi. H. *Goitik behera* 9. K. Ki. Ne. Sa. 10. Ohoina. Zil. 7. Eza. Aratza. 8. Zirikatu. B. 5. Ura. I. Uu. A. 6. Mandoa. Rat. 3. Alukeria. I. 4. Ka. Eraigi. 1. Egonaldiak. 2. Materria. Ta. *Ezker eskuma*

bonofotoa



Miguel Angel Elkorobereziabar



Zein kaletatik zein kaletara garamatza bide honek?

galde debalde

Arretaz irakurri duzu Berrigara? Ea galdera hauei erantzuten diezuen!

1. Zein berritasun izango du aurtengo San Martingo feriak?
A- Okela gisatu lehiaketa
B- Alemaniako garagardoaren dastaketa
C- Bakailau tortila lehiaketa
2. Zeinek egin zuen Bergararen bigarren gola Lemoaren kontrako partiduan?
A- Unai Rollanek
B- Pako Santiagok
C- Josetxo Lizarralde
3. Nola du izena San Joxepe elkarteak kaleratu duen aldizkaria?
A- Kaixo!
B- Hobetzen
C- San Joxepe news



Super BMk emandako 5.000 pezetako erosketa-bonoa zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!



Aurreko aleko saria, **Aritz Baldarentzat** izan da: 5.000 pezetako erosketa-bonoa. Zorionak Aritziti! Galderen erantzun zuzenak hauek ziren: Bonofotoa: **Lasai-Toki** Galde Debalde: **1-C, 2-C, 3-B**

BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1: _____ 2: _____ 3: _____

Izen-deiturak: _____ Telefonoa: _____

Ekarri txartela **EGUAZTEN EGUERDIRAKO** Berrigarara! SARI EDERRA IRABAZ DEZAKEZU!

Colon
garbigarria, 15 ontzitzo
619 PTA!
Super BMen beti eskaintzarik onenak!

Zubikua baserrikua dugu Emeterio Elkoroberezibar. 69 urte dauzka, eta orain erretiratuta dagoen arren, baserritik bizi izan da betidanik. Sanmartiñetako ferixako lehiaketa danetako epaimahaikide da.

Noiz hasi ziñan epaimahaikide lanetan?

25 bat urte izango dira. Oñatira be juaten naiz.

Zela jartzen zarete ados danok irabazlia aukeratzeko?

Gaztaienian kuestionarixoko bat betetzen dogu. Bestietan, berriz, konsensuz; ez gara beti ados egoten.

Zer bihar dau gaztai on batek?

Latxa ardxana izatia eta gatzagi naturalakin eginddakua.

Jatun ona izango zara, ezta?

Bai; ez naiz asko jatekoa, baiña bai sibarita samarra.

Jatordu ideal bat?

Menestra bat goizian batutako idarrekin, eta etxeko esparraguak arraultza batekin.

Iñoiz probatu dozun gaztairik onena?

Lehiaketetatik kanpo jandako bat, Araotzen lehengusuan etxian.

Eta zerekin busti bihar da holako gaztai bat?

Epaimahaikide lanetan gabitzenian urarekin, baiña bestela Montilla edo Jerez batekin.

San Martiñetan, azokan parte hartu bai, baiña juergarik egiten dozu?

Gaztetan bai, baiña orain ez daukagu gorputza horrelakuetarako.

Euskal Herriko jaixak janaririk barik zer izango lirakie?

Mundialak, janakin bezañ onak.

Emeterio Elkoroberezibar

Oporrak zela jun dira?

Betiko moduan, lan eta lan. Nik sekula ez dot oporrik hartu.

Ez zarete iñora jun?

Gurian uda partian egoten da lanik gehixen; laster andria eta bixok balnearixora juango gara.

Urtarorik gustokuena?

Udabarrixa, duda barik; munduko espektakulorik zoragarrixena da Euskal Herrixa maiatzian.

Zu baserrikua zara. Aukeran, baserrixa ala kalia?

Baserrixa.

Egunkarixan, zer da irakurtzen dozun lehenengua?

Periodiko osuari emoten jat beti errepasso bat.

Bihar goizian, zer albiste nahiko ziñuke irakurtzia?


Herriko gazte danek lapostu bat daukela, eta bakia lortu dala.

Espainiako Itzulixa zeñek irabaziko dabela uste dozu?

Ez dot asko segitzen, baiña nik esango nuke eskaladoreren batek.

Bukatzeke, amets bat?

Bergara maillan baserrixak mantentzia, industriak baztertu egin dittu-eta.



Ardo dastaketa ikastaroa

SAKONTZE MAILA


Irakaslea Mikel Garaizabal, enologoa eta sumillerra

Egunak Irailak 19, 20, 21 eta 26, 27

(martitzenak, eguaztenak eta eguenak)

Gaiak

- Estatuko eskualde puntakoak
- Jerezko ardoak
- Munduko ardoak
- Maridajea




Ordutegia 19:00etatik 21:00etara. Lehen ordua teoria eta bigarrena dastaketa

Lekua Kartzela Zaharra

Prezioa 6.000 pezeta Jarduneko bazkideendako; 7.000 gainontzekoendako

Izena emateko azken eguna Irailaren 15a

Informazioa eta izena ematea 943 76 36 61 / 76 08 19





Txipiron taldea

Astebukaera honetan lehen mailako futbol txapelketa hastera doa eta erretratu zaharreen ere futboleko argazki bat dakarkizuegu aste honetan. Garai batean Seminarioan jokatzen zen txapelketako argazkia duzue goikoa eta bertan agertzen diren mutilek Txipiron taldea osatzen zuten. Kategoria ezberdineko txapelketak antolatzen ziren Seminarioan eta gazteen partiduek ikusmin dezente pizten zuten, gaur egun uda partean Ipintzako txapelketarekin gertatzen den antzera. Txipironek ekipo ona zeukan eta infantil mailan arituko zen beste hainbat talderekin lehian. Ziurrenik, finalaren

atariko partidua izango da hau. Orduan finalak Pazkuen inguruan izaten ziren. Goiko argazkia 1980ko hamarkadaren hasierakoa izan daiteke. Honako hauek dira bertan agertzen direnak:

Zutik: ezezaguna, Iñigo Elkorro, ezezaguna, Karlos Lasa, Mikel Alberdi, Jabi Azkarate eta Ander Beristain.

Makurtuta: Igor Goirizelaia, Juanan Franco, Iñigo Alkorta, Gorka Larrañaga eta Asier Gallastegi.

Argazkia: Pedro Jose Eguren.

ADI!

Argazki zaharren bat erakutsi nahi izanez gero, BERRIGARARA bertara ekar dezakezu. Irizar jauregian gaituztu, zatoz!

Zuri Beltz margoak

Barnealde eta kanpoaldean erreforma,
pintura zerbitzu osoa eta moketak

943 76 14 60
607 447 494
943 76 59 59



umelaga

JATETXEA

58 urte zuen zerbitzura!

San Antonio 5 BERGARA ☎ 943 76 20 21



MEMESA

INDUSTRI HORNIDURAK

Tf. 943 71 24 25

Jokaldirik onena!



ARKO

2000-2001 IKASTURTEKO EUSKARA IKASTAROAK

Eskaintza

EUSKALDUNTZE eta ALFABETATZE
maila guztiak.

EGA eta EGAtik gorakoa.

Egokitutako taldeak:

Guraso, merkatari, enpresa, etab.

Erritmoak

2 ordukoa (iraila-ekaina).

3 ordukoa (iraila-ekaina).

5 ordukoa

(iraila-otsaila edo otsaila-ekaina).

Astean bi egunean 2 ordu eta erdi
(EGA).

Eskarien arabera, beste erritmo
batzuk ere eskain daitezke.

Galde ezazu!

Bulego ordutegia

Goizez: 08:30-13:00

Arratsaldez: 15:00-19:00

Matrikulatzeko epea

Irailaren 4tik 15era.

16 urtetik gorakoentzat.

Bekatzeko sistema eta diru
laguntzak ditugu.

BERGARAKO UDAL EUSKALTEGIA

Zabalotegi, 13 • BERGARA • Tel.: 943 76 44 53

berg.eusk@udal.gipuzkoa.net **edo** berg.euskudal@euskalnet.net



HABEren dirulaguntzaz.

GRUPO **RK UZ**


ARETXABALETA

ARRASATE

Oparia

EROSKETA DOHAIN



Telebista-Bideoa-Soinua-
Banatzaile ofiziala **expert** 

Andra Mari Auzunea, 1 • Tel. / Faxa: 943 79 10 97
ARETXABALETA



Etixerako altzariak-
Diseinua-Dekorazioa

Araba etorbidea 20 • Tel. / Faxa: 943 79 23 51
ARETXABALETA



Banatzaile ofiziala
FAGOR 

Mitarte 3 • Tel. / Faxa: 943 77 04 55
ARETXABALETA



Etixerako altzariak-
Diseinua-Dekorazioa

Araba Etorbidea 5 • Tel. / Faxa: 943 79 41 82
ARRASATE

Zenb. 00000

Zenbaki honekin parte hartuko duzu

Aretxabaletako **Arkauz Altzariaken** (Araba Ibilbidea, 20)

2000.eko uztailaren 1ean eta irailaren 30ean,
arratsaldeko 20:00etan egingo den zozketan.

Zozketa bakoitzeko saridunak DOHAINEKO EROSKETA izango du opari
(500.000 pta.rainoko erosketa).

Erosketaren zenbatekoa boletoan dago zehaztuta.

Erosketaren zenbatekoa:

--	--	--	--	--	--	--	--

pta.

(gutxieneko erosketa 80.000 pta.takoa)